



## Inauteriak

Joaldun eta mozorro besta

### MALERREKA → 16

VIII. eskuz binakako pilota Txapelketa abian

### BAZTAN-URDAZUBI → 28

Donejakue Bideari buruzko gida kalean

### LEKAROZ → 35

Enpresa campusa egin nahi du Gobernuak

### SENPERE → 36

AHT herriko oihanean barna pasako da



Minbiziaren kontrako ikerketan dihardu Amaia Lujanbio goizuetarrak AEBetako CSHL laborategietan. Etorkizunera begira, kanpoan ikasten ari den teknikak hemen erabili nahi lituzke.

ELKARRIZKETA → 3

Amaia Lujanbio:

«Minbizia gelditzeko bada zerbait denon esku dagoena: tabakoa uztea»

ERREPORTAJEA → 4-5

Inoiz baino langabe gehiago dago eskualdean



Bi urte lehenagoko langabeen kopurua ia bikoiztuz joan da 2009a. 1.114 lagun dira Doneztebeko Enplegu Bulegoan izena emanan dutenak. Horrez gain, Nafarroako Gobernuak 47 kaleratze baimendu ditu Berako Funvera lantegian.

BERTSOLARITZA → 22

Nafarroako Bertsolari Txapelketa abian



Larunbat honetan hasiko da 39. Nafarroako Bertsolari Txapelketa. 27 bertsolarik hartuko dute parte, tartean 17 ingurukoak. Finala martxoaren 20an izanen da Lesakan.

ZOZKETA → 47



ERAKUSKETA: Bittiria 26 - SALTOKIA: Plaza Zaharra 27  
Tel. 948 63 77 80 • LESAKA



**KRISI-KONTRAKOGAUA** **23**  
URTARRILAK  
LAGUNATA

01:00 - 02:00 Dohainik eta 2x1

02:00etatik aintzinerak 9€ eta kontsumizio bati dohainik 03:30ak arte

**KRISI-KONTRAKOGAUA** **30**  
URTARRILAK  
LAGUNATA

01:00 - 02:00 Dohainik eta 2x1

02:00etatik aintzinerak 9€ eta kontsumizio bati dohainik 03:30ak arte

**ETALAISTER...**

**BERRITXARRAK** **20**  
URTARRILAK  
LAGUNATA

**KENZAZPI** **20**  
MARTXOAK  
LAGUNATA

**KAOTIKO** **10**  
APRILAK  
LAGUNATA



**Lur**  
WWW.LURLAGUNATA.COM

Txikitatik naturak eta bereziki biziak jakin-mina sortu izan diolako erabaki zuen Amaia Lujanbiok (Goizueta, 1982) Biologia ikastea. Nafarroako Unibertsitatean egin zituen ikas-

ketak 2000tik 2005era bitartean, eta orduan hasi zen laborategietan lanean. Gaur egun New Yorkeko CSHL Cold Spring Harbor Laborategiarentzat egiten du lan eta

minbiziaren kontrako ikerketan dihardu. Etorkizunera begira, AEBetan orain ikasten ari dena hemen aplikatzea gustatuko litzaioke.

**Amaia LUJANBIO** | Minbiziaren kontrako ikerkuntzan ari den goizuetarra

# «Minbiziaren kontrako armarik boteretsuena tabakoa uztea da»

**G. PIKABEA** | GOIZUETA


## Zein ibilbide profesional egin duzu?

Unibertsitatean ikasten ari nintzela, hainbat laborategietan hasi nintzen lanean, lehendabizi Nafarroako Unibertsitatean eta gero Madrilen, CSIC-en (Consejo Superior de Investigaciones Científicas) eta CNIO (Centro Nacional de Investigaciones Oncológicas). Horrela jakin nuen minbizia ikertu nahi nuela. Lizentziatura bukatu eta doktoretzarekin hasi nintzen CNIO, Manel Esteller-en laborategian.

## Tartean, Eduardo Gallego beka hartu zenuen...

Nire tesia egiteko Ministerioiko beka bat lortu nuen lau urtetarako. Gainera, 2008an Francisco Cobos Fundazioko saria lortu nuen, Eduardo Gallego Beka. Urtean beka bakarri ematen da estatu guztirako eta ikasketetan eta ikerketetan egindako lorpenak saritzen dira. Izugarritzko poza eta motibazioa izan zen niretzako. Zientzia mundua oso gogorra da eta horrelako sariak beharrezkoak dira gazteak motibatzeko eta gure lana jendearengana ailegatzeko. **Holandan, New Yorken... ibilia eta zabilza. Zein da zure lana?**

Minbiziko zeluletan zein mekanismo molekular gertatzen diren ikertu nahi dugu. 200 minbizi mota



UTZITAKO ARGAZKIA

Amaia Lujanbio New Yorkeko CSHL laborategietan lanean.

baino gehiago daude eta bakoitza ezberdina da. Baina badira mekanismo batzuk berdinak eta hori ulertzen badugu, minbiziagaritzea errazagoa izango da. Nire tesia CNIO, Madrilen, hasi nuen, epigenetika arloan. Amsterdamen segitu nuen NKIn, eta Bartzelonan bukatu, PEBCn. **Norentzat egiten duzu lan?**

Cold Spring Harbor (CSHL) laborategietan egiten dut lan. Oso laboratoriorio enblematikoak dira eta Nobel Saria iraba-

## MUNDU ZAILA

«Izugarritzko poza eta motibazioa izan zen niretzat Eduardo Gallego Beka jasotzea. Zientzia mundua oso gogorra da eta horrelako sariak beharrezkoak dira gazteak motibatzeko eta gure lana jendearengana ailegatzeko»

zi duten ikertzaile mardoskak egiten du lan hemen. Nik Scott Loweren laborategian ikertzen dut, eta saguetan minbizi sortzen dugu errazago ikasi ahal izateko.

## Kanpoan hemen baino aurrerapen haundiagoak daude?

Laguntza ekonomikoaren arabera da ikerketen kopurua eta kalitatea. Gure kasuan ez dugu laguntza askorik, AEB edo Europarekin konparatuz. Hala ere, gure ikerketen kalitatea oso ona da. Orain, AEBetan hainbat

teknika ikasteko aukera daukat, gero teknika horiek hemen erabiltzeko. **Zer egin dezake epigenetikak minbiziari saiheskerako?**

Mutazio genetiko bat badugu, minbiziari gelditzen duten esaldiak (edo genak) betirako desagertzen dira. Bestalde, epigenetikak huts egiten badu, esaldi hori errekupe-ratu liteke botika epigenetikoak erabilita. Horrela, minbiziari gelditzeko esaldia berriro irakurriko da eta horrek minbiziari geldituko du.

## Zein egoeratan dago minbiziaren kontrako ikerketa?

Aurrerapen asko egin dira, baina hala ere, oso arazo serioa da eta kasu askotan ezin da askorik egin. Prebentzioa eta diagnostiko lasterra oso inportanteak dira. Adibidez, minbiziaren kontrako arma boteretsuena tabakoa uztea da. Biriketako minbizi kasuen %90 tabakoaren erruz sortzen dira. Ahalegin asko egiten ari gara minbiziari gelditzeko baina bada zerbait denon esku dagoena: tabakoa uztea. Ikusi beharko zenukete nolako itxura duten erretzailleen birikek! Horrez gain, eguzkitik babestu behar da, alkohol gutxi edan, ondo jan... Eta medikuek gomendatzen dituzten kontrolak segitu (mamografiak, kolonoskopiak...).

LANA → INOIZ BAINO LANGABETU GEHIAGOREKIN BUKATU ZEN 2009 URTEA

# Funveran 47 kaleratze onartu ondotik lan etorkizunak kezka sortzen du eskualdean

Industrian, lantegi handietako langileak EREtan murgilduak; langabetuen erdia baino gehiago zerbitzu arloan eta abeltzaintza ere krisiak jota.

Lan arloko berri beltzekin joan zen 2009. urtea. Errate baterako, abenduaren 31n sekula baino langabetu gehiagok emana zuten izena Doneztebeko Enplegu Bulegoan (1.114), bi urte lehenagoko kopurua

(598) kasik bikoiztuz. Urte berria ere beltz hasi da, Nafarroako Gobernuak Funveran 47 kaleratze baimendu ditu eta gainerako langileek 117 eguneko suspentsio EREa izanen lukete.

## Aitor AROTZENA

Baztan-Bidasoaldeko alkate eta zinegotziek abenduaren 26an ELA eta LABek *Etorkizun duin baten alde*, *Baztan-Bidasoa bizirik* lelopean deitutako manifestazioarekin bat egiteko agirian garbi zioten: «Funvera enpresa laborategi moduko bat izanen da Bortzirietan eta atzetik etorriko diren enpresak intentzio berdinak izaten ahal dituzte». Nafarroako Gobernuak enpresa horretan 47 langile karrikartzeko baimena eman zuen ilbeltzaren 4an eta lantegian geldituko diren 86 langileek 117 eguneko suspentsio EREa izanen dute. Erabaki honekin konforme ez eta abenduaren 2an hasitako

mugagabeko grebarekin segitzen dute Funverako langileek. Honek erakus dezake inguruko lantegi handienetan zer datorren, «bidea irekitzen du eta kontagio-efektua eragin dezake», ELAko Jose Mari Arribillagaren erranetan, nahiz eta itxura batean, Lesako Arcelor lantegian oraindik inon ageri ez diren inbertsioak egiten diren, Bidasoa Plannaren baitan. Zerbakiak hor daude: 20.000 bizilagun inguruko eremuan 7.500 lagunek osatzen dute populazio aktiboa, 2.000 langile EREetan murgilduak daude eta 1.114 langabezia. Baina Funverako langileek gogorarazi duten moduan, zerbaki huts eta

hotzen gibelean pertsonak eta familiak daude. EREan dauden langileak ez dira langabetutzat jotzen, baina langabezia-saririk kobratzen dute soldata. Eta langabezia-saria lan egindako urteen arabera kobratzen da, bi urtez gehienez.

Doneztebeko Enplegu Bulegotik jakinarazitakoaren arabera, jogan den urteko abuztuen eskualdeko 70 lagun langabezi-saria bukatutakoan ematen den hileko 420 euroak kobratzen ari ziren dagoneko. Kopuru hori bikoiztu egin da urte hasiera honetan eta 170 bat langabe ari dira subsidio hori kobratzen. Familiako zama edo adinaren arabera, bertze subsidio mota ba-



Funverako langileek hainbat mobilizazio egin dituzte eta egiten ari dira b...

tzuk ere kobratzen ahal dituzte langabeek.

Condesa taldeko Zalain Transformados lantegian ere, iaz bezala, Enplegu Erregulazio Espedientea ezarri nahi dute langileen oniritzi gabe, «ez baitu inolako osagarririk ezta tranparentzia konpromisorik ere». 2005ean 440 langile ari ziren Zalainen, horietatik 120 ebentualak. Orain 299 ari dira. Funveran ere 202 langile zituzten 2008an, 148 iaz eta kaleratzeak gauzatuz gero, 86tan geldituko dira aurten.

## ENPRESAK ITXI EDO

### LANGILE GUTTIAGOREKIN

Bi lantegi hauek dira gaur egun egoera gordinena dutena, bai-

## LANGABETUAK <sup>(1)</sup>

Arano	7
Arantza	19
Areso	7
Baztan	282
Beintza-Labaien	7
Bera	138
Bertizarana	42
Donamaria	14
Doneztebe	85
Elgorriaga	8
Eratsun	10
Etxalar	31
Ezkurra	6
Goizueta	35
Igantzi	23
Ituren	21
Leitza	119
Lesaka	111
Oitz	11
Saldias	4
Sunbilla	34
Urdazubi	13
Urrotz	4
Zubieta	12
Zugarramurdi	10

<sup>(1)</sup> 2009ko azaroko datuak

1.100

1.000


900

800

700

600

## LANGABETU KOPURUA 2008-2009 HILABETEZ HILABETE (DONEZTEBEKO BULEGOAN IZEN EMANAK)






ra beraien lanpostuen defentsan.



ESALDIA

«Funveran gertatu dena ikusita urte hasiera beltza dator, hori bistakoa da. Beharbada ekain aldera edo udako oporraldiaren ondotik ikusten hasiko gara nolako etorkizuna duen Bidasoaldeak»

Joxe Mari ARRIBILLAGA  
ELA



ESALDIA

«Patronala eta Gobernuak krisiaz aprobetxatzen ari dira langileriaren eskubideak suntsitu eta beraien interesak inposatzeko, negozioa egiten segitu eta langileria ahal bezain bertze estutzeko»

Koldo SAENZ  
LAB



ESALDIA

«Metal arloan egoera ez da batere ona, baina itxaropena dugu Bidasoa Planak Arcelor lantegian ekarriko dituen inbertsioekin. Horiek lehenbailehen gauzatzeko lan egin beharko dugu»

Joaquin BENGOTXEA  
UGT

**ENPLEGU ERREGULAZIOA**

39

**LANTEGITAN**

eman dira EREak 2009 urtean (29 aldi baterako eta 10 ixteko)

1.728

**LANGILERI**

eragin zieten Enplegu Erregulazio Espediente horiek iaz. 222 langilek lanpostua galdu zuten.

na Joxe Mari Arribillagari, 140 langile inguru dituen Saverak ere kezka eragiten dio, «hor ere EREekin dabilta eta Txinan eta Brasilen lan bera egiten duten lantegiak daude».

Gogoratu behar da iaz zenbait lantegi itxi zirela. Aranoko Heineken izan zen handiena, 82 langilerekin, baina Bortzirietan, 40 bat langile zituzten eraikuntza arloko Bordamine eta Bikain eta Irigoien zerrategia ere itxi egin ziren. Izan ere, Sakanaren ondotik, gure inguru hau da Nafarroan krisiak bortitzen jo duen eskualdea. Langile guttiagorekin

funtzionatzen ari dira lantegi gehienak, sindikatuek emandako datuen arabera. Eskualdeko enpresarik handienak, Arcelor-Mittal-ek, 730 langile zituen Legasan eta Lesakan 2006an eta orain 620 ditu. Garairik onenetan 1.500 langile izan zituen Leitzako Sarriopel enpresak kasik ehun langile galdu ditu 2000. urtetik (455 langile) 2010era (360).

Enpresa ertain eta txikietan ere somatzen ari da jautsiera. Beraiko Composites Gureak 60 langile zituen 2004an eta 32 ditu urte hasiera honetan. Beraiko Alpha Ibericak 24 langile ditu orain eta 34 zituen 2008an. Electricidad Ayala


enpresak 9 langile zituen 2008an eta bakarra 2010ean.

**SINDIKATUEN KEZKA**

LABeko Koldo Saenz en arabera, «eskualdeko errealitate ekonomikoa arriskuan dago, orain arte ezagutu dugun industria-sarea suntsitzen ari dira, zerbizuetan oinarritutako ekonomia sustatzeko. Honek gure iritzi eskualdearen heriotza ekarriko luke, hainbat langilek kanpora joan beharko luketeelako eta herriak bizirik gabe geldituko liritekeelako *ciudad dormitorio*en fenomeno areagotuz».

UGTko Joaquin Bengoetxeak, Bidasoa Planaren barnean Ar-

celorrerako aurreikusia dagoen inbertsioan jarria du lan egoera hobetzeko itxaropena, «gaur egun beltz» dagoela aipatu baitigu. Arcelorrek Lesakan egiteko dituen inbertsioak epeka gauzatzekoak direla ere adierazi digu Bengoetxeak, eta «epe horiek lehenbailehen gauzatzen joatea» izan beharko du sindikatuen zeregina. Alde horretatik, ELAko Joxe Mari Arribillagak aipatu digunez, «gauzak mantso doaz eta Lesakako lantegian oraindik lanez murrizt dabilta, kezkatuak daude».





**Nire txanda**  
Beñardo GOIETXE

## Urte berri, zaharrak berri

**H**asi da, urte berria, eta egiazko negu giroan gainera, ahaztuxeak baikenituen garai batenko elur, horma eta hotzak. Eta ez, usaian bezala, gehienoi ez zaigu loteriarik tokatu eta osasuna dirua baino balioetsuagoa dela gogoratu dugu berriz. Halere, lehenbiziko sari baten %20 bakarrik banatu dela jakindakoan, gainerako %80 hori krisia arintzeko erabiliko ote den «bel-

**Osasuna dirua baino balioetsuago dela gogoratu dugu berriz.**

dur» gara. Bertzalde, krisi hori dela-eta, Eguberriotan jende anitz erosi eta erosi ezin ase ikusi dugu, pobreago bai, baina zoriontsuago bizitzeko ere aski prest gaudela ohartuz. Azkenik, sasoi hautatua izaten omen da honakoa, buruan herrestaka ibilki zaigun eginbehar miresgarri horren urtea ailegatu dela barneko temazuari sinetsarazteko. Eta hauek izan dira 'Zaharrak berri' saioko albiste onenak. Txarrenak, bertzeak bertze; «Langabezia», «Euskara eta Euskal Kultura Nafarroan», «Udaletako Balantze eta Aurrekontuak» eta «Ezbeharrak» ataletan aise atzemanen dituzu. Urte eta berri on!

### Ezpala

Aitor AROTZENA

## Ez gara zenbaki hutsak

**E**z gara Nortasun Agiriko zenbakia, ezta bankuko kontu zenbakia ere, ezta autoaren matrikula ere, ezta langabeziko estatistikan zenbaki bat gehiago ere: pertsonak gara, familia duten pertsonak, bizitza duten pertsonak, bizitzeko lana behar duten pertsonak, krisiaren aitzakian langabeziara bidali nahi duten langileak... Tristeia da, baina Funverako langileek gogorazazi behar izan digute hori.

### Nabarmentzekoak



Jon JAUNARENA  
Leitzako pilotaria

Lau terdiko Euskadiko elite mailako txapelketa irabazi zuen ilbeltzaren 8an Jon Jaunarenak Sopelan. Finalean Mendizabal izan zuen arerio eta 22-18 irabazi zion.



Ariane CASSAL  
Errekako judoka

Nafarroako txapelketa irabazi zuen 78 urtez behetik kategorian. Errekako Noelia Ariztia eta Sandra Averok zilarrezko dominak lortu zituzten beraien kategorian.



Xabier SILVEIRA  
Lesakako bertsolaria

Sei aldiz Nafarroako txapela jantzi duen Xabier Silveirak ez du parte hartuko aurtengo Nafarroako Bertsolari Txapelketan. Larunbat honetan Aizarotzen hasiko da txapelketa.

### Atzera begira → 1992.01.23 / TTIPI-TTAPA 78. zbk



### Mendi mutilen besta furi-furian Arantzan 1992an

Aurten berreskuratu dute Arantzako Aterpen Errege Eguneko mendi-mutilen besta, baina orain 18 urte furi-furian zeuden. Ez hori bakarrik, oraindik mendi mutil aritzen ziren bi aranaztarren iritziak ere bildu zituen TTIPI-TTAPAK. 1968an Frantzia lanean hasi zen Donato Lizardiren erranetan, «orain lan ordu guttiago sartzen dugu eta etxera ere maizago etortzen gara». Julian Elizondok hamabortz urte zeramazkin Frantzia lan egiten eta tarte horretan gauzak aunitz aldatu zirela adierazi zuen: «Lehen euskaldunek egiten genuen lana orain marokarrek, portugaldarrek eta turkiarrek egiten dute», zioen.



**Argitaratzailea** Ttipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Andueta, 12 • 31760 ETXALAR

Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • [info@ttipi.net](mailto:info@ttipi.net)

**Zuzendaria** Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Publizitatea** Usoa Vicente, Kulturkari SLU **Berriemaileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Sazar, Kontxi Klaber, Ainhoa, Aranbxa eta Maider Ansa, Asier Imaz, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urroz, Joseba Olagarai, Nerea Mitxeltoarena, Maite Oteiza, Jaione Otxandorena, Xan Harriague, Markel Lizasoain, Eneko Mitxeo, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria...

**Fundazioaren Presidentea** Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

**Lege Gordailua** NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

**Erakunde laguntzaileak** Etxalar, Leizta, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Bortziritako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

#### 2010eko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria	.....37€	Europa	.....55€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka	.....31€
Ipar Euskal Herria	.....55€	Amerika eta Australia	.....123€	Leizta	.....15€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Euskarabideak diruz lagundutako aldizkaria



## Kolaborazioak

# Nafarroako Euskara Zerbitzuak itolarrian

### Nafarroako Euskara Teknikarien Lanbide Elkartekideak

**E**goera honen larria ez balitz, Nafarroako Gobernuan guraizeak hartu eta aurrekontuekin jostatzen hasi direla pentsa genezake: ebaki hemendik, moztu handik... eta ea azkenean zerbait gelditzen den. Errealitatea askoz ere gordinagoa da, ordea. Krisi ekonomikoaren aitzaki-maitzaki, UPNren Gobernuak PSNren bultzadarekin, sprinta egitea erabaki du, nonbait, euskararen mundua itozteko lasterketan. Batez ere 2004tik hona tantaka iritsi zaizkigun diru-laguntzen murrizketak uholde bihurtu dira Gobernuak Euskarabidea sortu duen honetan, eta asko dira oldarraldi honen berekin hondamendira eramantzeko proiektuak. Diru-laguntza murrizketa horien ondorioz Euskara bera eta euskaldunon komunitatea gara kaltetu zuzenak. Eta horrela salatu izan da ia egunero hedabideetan gobernuaren jokaera gaitzesteko azaldu diren artikuluetan. Oraingo honetan, beste ikuspegi batetik salatu nahi dugu sortzen ari den egoera, hain zuzen ere langileak garen aldetik. Azken batean, euskaltegiek, euskarazko komunikabideek, beste erakundeek eta udalek euskara sustatzeko ematen dituzten zerbitzuen atzean langileak ere bagaude. Gobernuak 1998an hitzarmena sinatu zuen hainbat toki entitateekin horietako euskara zerbitzuak abian jartzen laguntzeko. Hurrengo urtean 576.200 euro eman zituen, eta zerbitzuen kopuruak 18tik 23ra gora egin badu ere, diru kopuru hori gainbeheran joan da nabarmen 2005. urtean erdira jaitsi baitzen, 374.700eurora, Pegenaute Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusi zela. Ondoren, euskararen salbatzailetzat aurkeztu ziguten Xabier Azanza etorri zen eta aurtan berriz ere minimo historikoetara, 300.000 euro eskasera jaitsi da laguntza hori. Baina ahoa itxi ezinik geratu gara jakin dugunean heldu den urteko aurrekontuetan dirulaguntza hori 10.000 euroko kantitate sinbolikoan utzi dela, Alberto Catalan Hezkuntza Departamentuko buru dela. Aurreko 13 urteetan Iruñeko Udalak Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza propioa izan arren, hurrengo urtean 10.000 euro horiek Iruñarekin ere konpartitu beharko ditugu. Jakina, Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza murriztuz joan den heinean, udalek areagotu behar izan dute haien ekarpena. Egia da zenbait udalek egoera erabil dezaketela hain deseroso zaizkien euskara zerbitzuak deuseztatzeko, baina zerbitzu horiek iraunarazteko beharra, asmoa eta gogoagertzen duten beste udal batzuek ere nekez etsi ahal izanen diote itolarri ekonomikoari. Kontuan izan hainbat lekutan euskara zerbitzua dela gure hizkuntza sustatzeko egun dagoen ia bide bakarra, litekeena baita oso, hizkuntza politika suntsizaille horren ondorioz, euskara zerbitzu batzuk epe laburrean desagertzea, eta haiekin batera teknikarien lanpostuak eta urteetan egindako lan neketsua. Beste toki entitate batzuek euskara zerbitzuei etsiko diete baina, diru murrizketen ondorioz, espero liteke horien normalizazio planak ere kaltetuak izatea. Beraz, euskaltzale eta arloko langile gisa gure kezka eta haserrea agerrarazi nahi dugu.

«Hizkuntza politika suntsizaillearen ondorioz litekeena da euskara zerbitzu batzuk epe laburrean desagertzea»

# Euskarak behar gaitu!

### Juainas PAUL

**D**enbora gehiegi daramakigu begien aurrean duguna sinetsi ezinik. Berrero ere, boteretik murriztu behar dituzte ustez guriak ziren eskubideak: hizkuntzarenak, alegia. Euskara ofiziala da. Hain ofiziala omen, Eguberrietako mezu politikoan zoriontzeko balio duela. Nahiko eta sobera!

Zertarako da ofiziala? Egun, mugak gero eta zehatzagoak, altuagoak, maitzurragoak, jasateko balioduna dugu. Nafarren arteko bereizketa ezarri zen garai batean, gaur ez-euskaldun gehiengo bantentzat euskara uler ez daitekeen mamua da, mehatxua. Maiz, politikarekin loturik ikusten baita, izaera eta pentsaera desberdinak urratu nahi duen tresnatzat hartzen dute. Deusetarako balio ez duen hizkuntza bat izateaz gain... ingelesez hobe.

Ingeleseko bidea jorratzen ari dira hezkuntza bertan, momentuz genuen alor sendoena eta eraginkorra. Eraso miserablez josi gaituzte, gure ezintasuna neurtu dutelako. Ez gera gauza baturik aritzeko, tradizionalki eta egiazki elkar muturka jokatzeko ohitura dugulako. Bakoitzaren egia bakarra eta dogma tamainakoa izanik, ñabardurei tokia kentzen diegu, elkar aritzeko aukerei atea itxi eta indarrak sakabanatzeko modu aproposena lantzen dugu. Nabarmena. Nabarmenegia. Hainbeste, aurkariak arazorik ez dutela izanen ikusi dutela. Pragmatikoak dira, praktikari, ekintza eraginkorri, benetan gertatzen denari begira jokatzeko dute. Gure mokoka aritzeaz zukua ateriz, botere eta diruaren jabeak direla probestuz, finantziario iturriak itxi, legalitatea zirikatuz oreka labainkorrera eramanez, hitz gutxitan, ahal den gutxiena bueltatu, ahal den gehiena kendu eta bidea trabaz betetzen jarraitu.

«Gure mokoka aritzeaz zukua ateriz, botere eta diruaren jabeak direla probestuz, finantziario iturriak itxi, legalitatea zirikatuz oreka labainkorrera eramanez, hitz gutxitan, ahal den gutxiena bueltatu, ahal den gehiena kendu eta bidea trabaz betetzen jarraitu»

egiazki elkar muturka jokatzeko ohitura dugulako. Bakoitzaren egia bakarra eta dogma tamainakoa izanik, ñabardurei tokia kentzen diegu, elkar aritzeko aukerei atea itxi eta indarrak sakabanatzeko modu aproposena lantzen dugu. Nabarmena. Nabarmenegia. Hainbeste, aurkariak arazorik ez dutela izanen ikusi dutela. Pragmatikoak dira, praktikari, ekintza eraginkorri, benetan gertatzen denari begira jokatzeko dute. Gure mokoka aritzeaz zukua ateriz, botere eta diruaren jabeak direla probestuz, finantziario iturriak itxi, legalitatea zirikatuz oreka labainkorrera eramanez, hitz gutxitan, ahal den gutxiena bueltatu, ahal den gehiena kendu eta bidea trabaz betetzen jarraitu. Hori dute metodoa. Helburua? Hizkuntza despolitizatu? Garatu edo garapenean lagundu? Txakurraren bibolina! Aldarrikatu ez daitekeen etsaia dute euskara, edozein hizkuntza etsaia nola izan daitekeen ulertzerik ez badago ere.

Hau guztia nola urratu? Politikarien zain geldituz gero, luzeegia izan daiteke bidea. Ez dakit hainbeste denbora dugun.

## Irakurleak mintzo

Urtarrilaren 4ko  
Batzan Orokorra  
dela eta  
amaiurtarren  
azalpenakJulian REKALDE eta Itziar  
ALEMAN (Amaiurko alkate  
eta kargodunen izenean)

**ERANTZUNA**  
2010.eko urtarrilaren  
4an Baztango Udale-  
an izan zen Batzar  
Orokorreko 11)-13  
puntuari, Amaiurko  
Munoan "Azysa Obras  
y Proyectos, S.L."  
enpresak egin nahi di-  
tuen zundaketei bu-  
ruzko eskariari, hain  
zuzen ere.

Gure eskutiz hone-  
tan ez ditugu gai honen  
aririk, udaleko korporazi-  
otik entzun ditugun kom-  
entario, azalpen edo  
adierazpen desberdinak  
idatziko arrot luze Joao  
bait zuen, hala ere gan-  
den asteleheneko bat-  
zaz orokorrean egon-  
dako gaizki ulertu edo  
hitzen manipulazio bat  
argitu nahiko genizue-  
ke.

Azysa enpresak  
Amaiurko Munoan egin  
nahi dituen zundaketei  
buruz mintzatzen hasi  
ziren Batzar orokorreko  
kide ezberdinak beren  
iritzia emanez, baina  
udaleko alkateorde eta  
NABAI-ko kideak egin  
zuen aipamen bat argi-  
tu nahi dugu.

Afera da "Amaiurtar-  
rok nahi ez duguna ber-  
tze herrietara bidali na-  
hi dugula" aipatu zue-  
la, hau, dudarik gabe,  
GEZURRA BOROBILA  
delarik! Hala bazen, gu-

re teilatura harria bota-  
tzen ariko ginen, ezta-  
la? Batzara baino bi hi-  
labete lehenago, gutti  
gora behera, Azysa  
enpresarekin bilera bat  
izan genuen, beraien  
idea zein zen azaltze-  
ko, eta bertan, Ofita ma-  
teriala arrot eskasa bai-  
no beharrezkoa zela er-  
ran ziguten.

Ondotik, NABAI eta  
UPN-kin elkartu ginen,  
herrian egin zen Herri-  
Bozkaketaren emaitzak  
erakusteko asmoz, bi-  
de batez, gure nahia ze-  
in zen azaltzera, zunda-  
ketak ez egitea. Hasie-  
ra batetik ikusi genuen  
bi udal taldeek beren  
erabakia hartua zeuka-  
tela gurekin egon baino  
lehen. Hala ere gure jar-  
rera eta kezkek azaldu  
genizkien. Bilera horre-  
tara, Nafarroako Gober-  
nuko Plano Geologiko-  
en kopia eraman genu-  
en, erakutsiz, Ofita ma-  
teriala ez dela hain es-  
kasa, Azysak dioen mo-  
duan, eta gure ustez ja-  
kin beharreko lehenda-  
biziko gauza, Baztanek  
zenbat material behar  
duen jakin beharko lit-  
zatekeela (jakinik mo-  
mentu honetan Alman-  
dozen material berdina  
ateratzen ari direla), on-  
dotik bigarren harrobi  
bat beharrezkoa den  
edo ez jakiteko.

Horretaz gain erran  
beharra dago, mapa  
geologiko horretan ja-  
kin daitekela gutti goiti  
behi ze material klase  
dagoen zonalde bako-  
itzean eta honek NA-  
BALren proposamene-  
an "bailarako baliabide-  
ak ezagutzea" deu-  
seztatzen du. Jadanik  
baitdakigu hor ofita da-

goela, oraindik ez daki-  
guna ustiaketa komer-  
tzial bat errentagarria  
den edo ez.

Bigarren harrobi ho-  
nen kokalekua da guri  
gehien kezkatzen gai-  
tuena, eta ez dugu ez  
Amaiurko baserri eta  
herriaren ondoan nahi,  
ezta Baztango bertze  
edozein baserri edo her-  
ri ondoan ere. Horrega-  
tik zuek nahi duzue-  
an harrobiaren kokale-  
ku zehatza erakusteko  
prest gaituzue (etortze-  
ra gonbidatzen zaituzte-  
gu) eta gogora ezazue  
arren Amaiurko herria-  
ren %94ak (bozkatu zu-  
tenen %87-tik) zunda-  
keta eta harrobi proiektu-  
aren aurka agertu ze-  
la. Herriaren hitza kon-  
tuta ez hartua izana ere  
errespetu falta bat idu-  
ritzen zaigu.

Beraz, espero dugu  
argi gelditu izana, eta  
faborez, gure hitzak ez  
daitezela manipulatuu!

Leitzako  
institutuko  
zuzendariariEkaitz ASTIBIA  
Leitzako ikasle eta ikasle  
ohi batzuen izenean

Leitzako institutuan,  
azaroaren 25ean, ema-  
kumeen aurkako indar-  
keriaren kontrako nazi-  
oarteko egunean, ger-  
tatutakoaren ondoren  
idatzi hau plazaratzera  
behartuak sentitu gara.  
Azaroaren 25ean ikas-  
leok gizarte honetako  
partaide garen heinean  
indarkeria sexista sala-  
tzeko erabakia hartu ge-  
nuen, honetarako, kon-

zentrazio xume batetik  
haratagoko lanketa egi-  
tea beharrezkoa zela iru-  
ditu zitzaigun, institutu-  
an indarkeria sexistaren  
aurkako aldarrikapenak,  
Euskal Herrian aurtan  
eraildako 7 emakume-  
en izenak eta emaku-  
meen aurkako bortxa  
adierazten zuen panpi-  
na bat jarri genituen. Ho-  
nen helburuak indarke-  
ria sexista gaur egungo  
gizartearen arazo bat  
dela jakinaraztea, ema-  
kumeenganako elkartar-  
suna adieraztea eta jen-  
dearen sentsibilizazioa  
bilatzea ziren.

Honen aurrean Lei-  
tzako institutuko zuden-  
daritzak, Peio Zestau  
zuzendaria buru duela,  
2. ordurako kartelak,  
eraildako emakumeen  
izenak eta indarkeria  
adierazten zuen panpi-  
na, desagerrarazi zi-  
tuzten. Zergatik egin ze-  
nuten hau? Zein zen zu-  
en helburua? Zein gi-  
zarte eredu irakatsi na-  
hi diezue zuen ikasleei?

Ez da lehen aldia hau

gertatzen dela, tortura-  
ren aurkako egunean,  
institutu atarian perso-  
na torturatua irudikat-  
zen zuen panpina bat  
jarri zen: aulkira lotuta,  
buruan plastikozko pol-  
tsa bat zuela. Eta hau  
ere, aurrekoa bezala,  
herriari ezkututzen sa-  
iatu zen. Torturaren au-  
rean isilik dauden par-  
tidu politikoen jarrera  
salatzen zuen pankarta  
bat jarri zen, eta honek  
ere zakarrontzian ama-  
itu zuen.

Gure ustez, hau  
guztia ez da adierazpen  
askatasunaren aurkako  
erasoa soilik, gu guztion  
oinarriko eskubideen  
aurkako eraso baizik.

Jakin ezazue, gizar-  
te eredu berri baten al-  
de borrokan jarraituko  
dugula eta ez garela zu-  
en nahietara makurtu-  
ko, ikasleria hezten jar-  
raituko dugula, zuen dik-  
tadurari amaiera eman  
arte!!

Indarkeria sexista  
Stop!

Tortura Stop!

**MERKATU TTIKIA**

Aldizkaria  
+ Internet 8€  
+ telebista

T. 948 635 458  
www.ttipi.net

**IRAKURLEAK MINTZO** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefona. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: info@ttipi.net  
Posta: Anduetzeta, 12 31760 ETXALAR  
Tel.: 948 63 54 58 Faxa: 948 63 54 57





### Bota bertsoa

Xabier TERREROS • Doinua: Haizea dator Iparraldetik

## Euskal Herrikoaren ondotik Nafarroako txapelketa

Bertsolari bat bertsoei buruz kantun hasten baldin bada, bakarren batek seguruaski erranen du “ze txapada!” Biño zer egin, holkuk izaki, berexiak beharbada... luze komenta dezakegunak azkeneko BECtekada: Potoa ote ziren Ametsen *bagara eta baikara?* Egañarena *sailburuana* metafora do txorrada? Nola ulertu ileak tente paratzen ditun *gobara*, aho beretik hamalau mila bihotzen herri taupada.

Orain heldu da Nafarrokoa, ekin diote lanari, inoiz atsedean hartzen ez duten gai-jartzaile, bertsolari, antolatzaile eta entzule; txanpon beraren aurpegi. Epailerei buruz zer erranen dut... beti ongi, zorrotz, adi! (Ezin ahantzi Nafarroako telebista, egunkari, jende ilustre, kulturakoa, gobernuko agintari). Herririk herri BILDUZ txinurri lan ixilean kantari, auspo eman ez itzali nahian dabilzan Nafarroari.

### 11 galdera labur

**Pilotaria, muslaria, zurgina, ehiz-taria, bestazalea... Zeinetan moldatzen zara hobekien?**

Uste dut ehizean eta pilotan.

**Pilotan aritzea eta besta egitea, bietan ongi aritzea posible al da?**

Pilotan ari behar denean besta gutti egin eta horrela moldatzen gara.

**Eta zer moduz aurtengo ehiza denboraldia?**

Ongi, ongi. Ez da sobera ona izan baina suertea eduki dut.

### Arantzako

**bestak edo inauteriak**

**nahiago?**

Inauteriak.

**Zer dute ber-**

**te herrietako-**

**ek ez du-**

**tena?**

Bakoitzak bere herrikoak izaten ditu gustuko eta guk gureak ditugu.

**Zein da Mozorro Zuria izateko beste beharreko baldintza?**

Besta egiteko gogoa izatea.

**Neskak zergatik ez ote dira ateratzen Mozorro?**

Ez dakit! Guk gonbidatzen ditugu baina...

**Zein dira Mozorro ateratzearen alde onak eta txarrak?**

Alde ona, lagun artean besta polit bat botatzen dela, eta hiru egunez disfrutatu egiten dela. Alde txarra, igual diru pixka bat gastatzen dela...

**Mozorro ateratzen ez zaren urtean zer pasako da?**

Ezkondua egonen naizela. Baina momentuz ez dut horrelako planik -irriz-.

**Zakuteneko gosariak, etxez-etxeke eskea edo bertso-afaria.**

**Zein duzu nahiago?**

Etxez-etxe eskean ibiltzea.

**Arantzako inauterietan orain arte ikusi duzun disfrazik politena?**

Duela urte batzuk herriko bi muttil gerrileroz jauntzi ziren eta hura arront polita izan zen.



Joseba MADARIAGA → Arantzako gaztea

**Alberto RETEGI**  
abokatu  
abokatu  
© 948 630 763 - Alzate, 17 - BERA

**Lanchas**  
PARKETAK - TARIMAK  
KUTXILLATZEA ETA BERMIZATZEAK  
ESTALDURA OROKORRAK  
Bera - Tfnoa: 948 630 735 - 407 406 781

**EDARIAK**

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)  
Tel. Fax: 948 63 10 27

**ZOANSA**

SEAT  
VW  
HYUNDAI  
Audi

**MARKA GUZTAN KONPONKETA**  
Banarta, 2 - Alkaiaga Industrialdea  
LESAKA (sarrera Beratik)  
Tel: 948 625 555 - Faxa: 948 625 505

**ANTZUZELAS**  
S.L.

Tel: 948 631 317

**BARRO NATURALA**

Ateratzen eta Lantzen

Bardaxurak  
Asteak  
Orengo arrautzak  
Lakak  
Oinak  
Ainak  
Pileak

Sesamoa  
Lantzen  
Beldurak  
Zakurak  
Oinak  
Garrak  
Berrakak

Aparatuak-Motzak  
Jabak gordinak Txanponak

**ZINBURUAK  
KIDEMAK  
ZILAK**

Inongo errepitibe  
BERA

## BERA

Merkataritza → HERRIKO DENDA ETA ZERBITZUETAN KONTSUMITZERA BULTZATZEKO JARDUERAK

# Larun Haizpe elkarteak positibotzak baloratu du Eguberrietako kanpaina

Bezeroen artean 100 euroko 15 erosketa txartel banatu dituzte

## TTIPI-TTAPA

«Egun horietan nabaritzen mugimendua, eta generalean, kanpaina ongi joan zela erran daiteke». Halaxe adierazi dute Adela Arlegik eta M<sup>a</sup> Jose Arak, Larun Haizpe Merkataritza Elkartearen ordezkariak. Izan ere, joan den urtearekin konparatuz, azkenekoan hainbat nobedade zituzten. Konparaziora, balkoi lehiaketa egin dute lehen aldiz Gabone-

tan. Hala, Altzateko etxerik apainena Jaione Dozagaratena izan dela erabaki zuen epaimahaiak. Berako Plazan, aldiz, M<sup>a</sup> Rosa Zozaia eskuratu zuen saria eta Legian Antton Anduezak. Agerra auzoko saria «aurtengoz hutsean» uztea erabaki zuen epaimahaiak.

## EROSKETA TXARTELAK

Berako dendetan erosteagatik 15 sari ere banatu ditu elkarteak. «Iaz sari bakarra zozketatu zen. Aurten saria gehiago banatzea hobe zela pentsatu genuen». Eta hala egin dute. Salbuespen modura, 50 euroko 16. bat ere eman dute, Balkoi Lehiaketan Agerrako saria eman gabe

gelditu zelako. Sarituek otsailaren 11 arteko epea dute dirua elkarteak dena eta zerbitzuetan gastatzeko.

## JOLASTOKIA HOBE EZTEGARAKO FRONTOIAN

Merkatarien elkarteak arduradunen iduriko, gustura gelditu da jendea jolastokia Eztegarakoan jarrita. Iaz Altzateko frontoian hotza pasatu zuten, eta Eztegarako itxia denez, epelago egin ziren denak.

## SARIDUNAK

Hauek dira Larun-Haizpeko zozketako sari-dunak: **Mertxe Burlada, Yara Urretabizkaia, Pakita Ibarburu, Mari Zelaieta, Rafa Puerto, M<sup>a</sup> Carmen Urtxegi, Arantxa Rozas, Felix Garcia, Oihana Senper, Karlos Senper, Gloria Zelaieta, Jose M<sup>a</sup> Errandonea, Luis Unсион, Jose M<sup>a</sup> Andueza, Telletxeko Elena eta Wendy Nuñez.**

## Irteera Goizuetara

Igandean, hilak 24, mendi martxa eginen da Goizuetara, 07:00etan Agerratik abiatuta. Agina-Goizuetara bidea egin nahi dutenentzat, berriaz, 08:15ean abiatuko da martxa. Oinez joan nahi ez edo ezin dutenentzat autobusa ere izanen da, 11:00etan Agerran. Behin Goizuetara ailegatuta, bazkaria Umore Ona Elkartearekin eginen da.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Txarkeriaz, udareondoa bota du norbaitek

Kondendiaga eta Lizuniaga artean, Kaprioko ehiza postu baten ondoan, argazkian ageri den udareondoa moztu zuen norbaitek joan den azaro hondarrean. Hasiera batean, bota duten arbola berriki toki berezuan 'Monumentu Naturala' izendatu duten udareondoa zela pentsatzen zen, 130 urte dituen, baina gerora jakin da ez dela arbola bera.



UTZITAKO ARGAZKIA

## 31 bikotek parte hartu zuen Genaro Taldea I. Mus txapelketan

Abenduaren 27an jokatu zen Errealzaleak biltzen dituen Genaro taldeak antolatutako Genaro Taldea I. Mus Txapelketa azkarra, 31 bikoteren parte hartzearekin. Asier Senper eta Julio Antzizar izan ziren txapelkun, finalean Joxe Mari Lasaga Matxako eta Pello Maritxi irabazita. Hirugarren eta laugarren posturako lehia ere estua izan zen baina azkenean Asier Saragueta eta Aitziber Biurrunek irabazi zieten Asier Irazoki Xolomo eta Andoni Lasagari. Genaro Taldeak antolatutako lehen ekitaldia izan zen Txapelketa hau eta aurtengo arrakasta ikusirik, ondorengo urteetan ere egiteko asmoa azaldu zuten taldeko kideek. Bertalalde, orain, urtarileko inaugurazioan burubelarri sartu da Genaro Taldea. Urtarrilaren 27an 19:00etan Ricardo Barojako jangelan eginen da omenaldia, eta Realeko jokalaria eta jokalaria ohia gonbidatuko dituzte.



MERKATARITZA → SUSTAPENERAKO TRESNAK

# 'Gehiago Zuregatik Kluba' aurkeztuko dute Beran ilbeltzaren 30ean

Erosleen fidelotasuna indartzeko egitasmoa jarriko dute indarrean Nafarroako dendari ttikiak

## TTIPI-TTAPA | BERA

Alcampo, Carrefour, El Corte Inglés eta antzeko saltoki handiek herri eta auzoetako denda ttikiei egiten dieten konpetentzia gogorarekin kezkatuak, merkataritza estrategia berria abiatuko dute hurrengo hilabete hauetan ehunka saltokik Nafarroa osoan. Horretarako, 'Gehiago Zuregatik Kluba' sortu dute hainbat erakundek.

## MARKETIN ETA SUSTAPENERAKO TRESNA INDARTSUA

Software indartsu bati esker, egitasmo honetan sartzen diren denda ttikiak tresna indartsuak izanen dituzte eskura. Hala, lehiakortasuna indartzeko baliagarri diren marketin eta sustapen

kanpainak egiten ahal izanen dituzte Klubaren partaide diren saltokiek eta, aldi berean, bezeroek hainbat deskontu eta abantaila izanen dituzte Klubeko bazkide diren dendetan erosteagatik. Funtsean, herri ttikieta-kondenta ttikiak eta merkataritza indartzea da helburua, eta denda hauetan kontsumitzen duten bezeroei saltoki handiek izaten dituzten pareko eskaintzak ematea.

## TXARTELA ESKURATZEKO EZ DA ORDAINDU BEHAR

Kontsumitzailearen aldetik begiratuta, Klubeko txartela eskuratzeko sistema sinplea da. Nahikoa izanen da norberaren datuak ematea bazkide diren dendetan, Nafarroako Kutxa edo Rural Kutxako bulegoetan, edota internetez [www.clubmasporti.com](http://www.clubmasporti.com) web orrian.



Informazio kanpaina dinamizatzeko, karrika-animazioa, musika eta bi pisuko busa ibiliko da. Berara urtarilaren 30ean etorriko da, goizez, Jamotenea pareko aparkalekura.

### BULTZATZAILEAK

#### FCN, CEIN, NAFARROAKO GOBERNUA

Hainbat erakundek sustatutako egitasmoa da. Horien artean daude Nafarroako Merkataritza Federazioa, CEIN eta Nafarroako Gobernuak.

### AURKEZPENAK

#### ELIZONDO ETA BERAN

Nafarroa osoan eginen diren 6 aurkezpenetatik 2 gure eskualdean egin dira. Gainerakoak Tafalla, Tuterak eta Iruñan.

### HARRERA ONA

#### BAZTANEN ETA BERAN

Bertan eta Larun Haizpe elkarteek begi onez hartu dute egitasmoa. Dagoeneko hainbat saltoki sartu dira Klubean.

## 14 DENDA BERAN, ELIZONDON 3 ETA DONEZTEBEN 1

Dagoeneko 100 baino gehiago dira Nafarroa osoan Klubeko bazkide diren dendak. Horietatik 18 Bidasoaldekoak dira.

Informazioa  
948 01 01 31  
Rural Kutxa  
eta Nafarroako  
Kutxaren bulegoetan

Errentagarriago  
Hurbilago  
Erosoago  
**Gehiago**

Nafarroako denda ttikiak zure fidelotasuna saritzeko elkartzen dira

CLUB  
**Más**  
xti

Gehiago Zuregatik Kluba  
[www.clubmasporti.com](http://www.clubmasporti.com)

Zure erosketengatik **Gehiago** ematen dizugu



Igo zaitez merkataritzaren bus-era: Beran, urtarilaren 30ean - 10:00 - 14:00 Toki Onako aparkalekuan

# LESAKA

OSPAKIZUNA → SAGARDETEGIAK ZABALIK

## Lindurrenbordan abiatu da Nafarroako sagardotegi denboraldia

Urtarrilaren 15ean egin zen irekiera eta Nabazen 20.000 litro egin dituzte

### Aitor AROTZENA

Nafarroako sagardotegi denboraldi ofiziala joan den ortziraletan, urtarrilaren 15ean, abiatu zen Lindurrenborda sagardotegian. Nabazko sagardotegia Dolarea Elkarteko kide da, Lekarozko Larraldea eta Aldatz, Beruete eta Lekunberriko sagardotegiekin batera. Aurten 20.000 litro sagardo egin dituzte Nabazko base-rian, gehiena Galizia eta Bretania aldetik ekarritako sagarrekin, «aurtengoa ez baita sagar urtea izan».

### Bertsolari txapelketaren finala herrian

Asteburu honetan abiatuko da Nafarroako bertsolari txapelketa eta finala berriz ere Lesakara bueltatuko da.

Martxoaren 20an jokatuko da udal pilotalekuan, 17:30ean. Herriko lau bertsolari ariko dira txapelketan. Iaz txapel-dun eta hirugarren izan ziren Xabier Silveira eta Erika Lagomak eta Joxe Juan Zubieta *Etxabek* aurtan ez dute parte hartuko. Aldiz, Estitxu Arozena bueltatuko da eta loar Taintak lehen aldiz parte hartuko du txapelketa nagusian. Xabier Terreros eta bertze hiru bertsolariarekin batera, otsailaren 6an Garesen izanen dute final laurdenetako saioa. Iñigo Olaetxea, iazko sailkapena kontuan hartuta, otsailaren 27an Iru-ritan egingen den finalurrekoan hasiko da.

### Ikastolak aipamen berezia

Tanturumairu ikastolak Nafarroako bertze laurekin batera gauzatutako Juul Blogak eta Juul Bideo Blogak egitasmoak Nafarroako Gobernuaren aipamen berezia jaso du. Liburutegiko materiala erosteko 1.250 euro jaso dituzte bortz ikastolek.



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

### Kariberako bidaia Itziar Mendiari egokitu zaio

Herriko Komertzianteen Elkarteak Eguberrietan egindako kanpainak arrakasta handia izan du eta guzira, zortzi komertziotan erosketak egin eta zigilua eman ondotik osatutako 796 txartel sartu ziren Kariberako bidaiaren zozketarako kutxan. Urtarrilaren 8an atera zuen txartel sariduna Maite Odriozola gazte- txoak kioskoan eta bidaia Itziar Mendiari egokitu zitzaion. Argazkian Itziar Mendiari ageri da txartelarekin, Komertzianteen Elkarteko zuzendaritza batzordeko kideekin batera.



UTZITAKO ARGAZKIA

### 110 kiloko basurdea bota dute Auzoberrin

Argazkian ageri den ehiztari kuadrillak 110 kiloko basurdea bota zuen Eguberri Egunean Auzoberri inguruan. Sasoi honetan gehiago ere badituzte ehizatutakoak, baina ez neurri honetakorik.

**ALVARO LOPEZ**  
Eskaiola, pladur lanak,  
sabal modularrak, tabikeak  
OBRA ZIURTAGIRIAK  
LESAKA • 651 704 593

**BOZZ-AID**  
LARRAZKIA  
948 637 127 • LESAKA

**IRU BIDE**  
Energia - Auzoak  
948 637 127 • LESAKA

**XATURETXEA**  
ZABALIK  
JATETXEA  
T: 948 637 260 • LESAKA

IKASTAROAK → DANTZA

## 4-5 urteko neska- mutikoak dantza ikasten hasi dira Anabel Arburuarekin

Altxata Kultur  
Elkartearen  
ekimena izan da

### Joseba eta Nerea

Etxalar dantzarien herri bihurtuko da abudo. Haur eta heldu, denak dantzan ari baitira. Azken asteotan dantzak ikasten hasi direnak 4 eta 5 urteko neska-mutikoak izan dira, Anabel Arburua herritararekin. Altxata Kultur Elkarteak proposatuta hasi da klaseak ematen Anabel eta astearteetan biltzen da gaztetxoekin, 17:00-etatik 17:30era. Dena den, azaldu digunez, «haurrak gustura badaude, luzatu eginen dugu».

### Angela Irisarri TTIPI-TTAPA banatzaile

Azken TTIPI-TTAPA aldizkariak normalean baino lehenago ailega-

tu dira gure etxeetara. Duela urte franko beazala, Angela Irisarri etxez- etxe banatzen ditu orain aldizkariak. «Astearteetan ateratzen da aldizkaria eta egunean bertan edo biharamunean banatzen ditut», erran digu.

### Larraburuko mus eta partxis txapelketak

Abenduaren 27an akautu zituzten Larraburua Jubilatuta Elkartearen aurtengo mus eta partxis txapelketak. Musean Santiago Olasagasti eta Daniel Iparragirre izan ziren txapelak eta Jesus Ansalas eta Mattin Zelaieta azpitxapelak. Partxisean, berriz, emakumeak bakarrik aritu ziren eta Juana Mari Arburua eta Enkarna Iparragirre izan ziren irabazleak. Bigarren postua Pakita Danboriena eta Kandi-



ARGAZKA: MIREIA MARTINEZ

Anabel Arburua bere dantza ikasleekin.



ARGAZKIA: ESTITXU ETXARTE

### Ludoteka berezia Jone Bizenteren eskutik

Eguberrietan Haurren Txokoa antolatu zuen Jone Bizentek, Izaro Altzuri sunbildarren laguntzarekin. Zazpi hurrek parte hartu zuten abenduaren 18an hasita urtarilaren 8ra bitartean, «denbora pasatu, bizikidetzaz ikasi eta ongi pasatzeko» helburuarekin antolatutako ludotekan. Besta egunak kenduta, bertze egun guztietan elkartu zen argazkian ageri den kuadrilla Kultur Etxean.

da Elizalde lortu zuten. Parte-hartzaile guztiak bazkari eder baten buel-

tan elkartu ziren eta ondotik, txapelak, lore-sortak eta trofeoak bana-

tu zituzten. Orain magra txapelketarekin hasi dira.

## ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontrabutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegarritasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com

LESAKA: Siltirio, 71-behea - Tel: 948 637 050 - Faxa: 948 637 050  
BURLATA: La Viña, 4 - Tel: 948 133 328 - Faxa: 948 133 713

## BORTZIRI UNSION ANAIAK

Sukalderako altzariak

Bereau etxea • LESAKA  
Tel: 948 637 266 • 607 226 691 • Fax: 948 637 511

# ARANTZA

OSPAKIZUNAK → INAUTERIAK

## Otsailaren 4, 5 eta 6an izanen dira inauteriak

Mozorro Xurien taldea egitaraua prestatzen ari da

**Nerea ALTZURI**

Oraindik besta eta ospakizun ondorioak gaintik kendu gabeak eta atzenduak ez ditugun honetan, herria prest dago aurtengo mozorro aldirako. Otsailaren lehenbiziko asteburuan, otsailaren 4, 5 eta 6an, inauteriak izanen dira eta ohitura den bezala, Mozorro Xurien ekitaldiak lotzen ari dira bilerak eginez.

Auzoetako eta herri kaxkoko baserri-baserri eta etxez-etxe puxka biltzea egiten da, *puxka-puxka* oihukatuz. Bizkar gibelean ohiko kolorezko puxkak ere paratuko dituzte eta horiek lehendabiziko egunean eskolara egiten duten bisitan opari jasotzen dituzte. Emakumeen afaria, bertso afaria, gaztetxoaren mozorro desfilea, herri kirol

saioa, Mozorro Beltzen bisita... Bertze urteetako ekimenak seguruenik aitzinera eramanez dira. Nolanahi ere, hurrengorako egitaraua zehatzago jakinaraziko dugu.

### Pilota kontuak

Pilotazaleekin batera, betidanik pilotari gazteak indartsu ikusi izan ditugu herrian. Joan den Errege Egunean, erraterako, Mendabiako Eguberrietako Txapelketan, 22 urtez azpiko afizionatuen tartean, Pottuneko Joseba Madariaga Arozena gazteak eta Yoldik Olo eta Zabaletari 22-14 irabazi zieten. Zorionak bie!

### Eskolako zareak badu jabea

Zuzaineko Margarieta Bergararentzat izan da eskolakoen Eguberrietako zare ederra. Abenduaren 19an egin zuten zozketa eskolan eta berea izan zen zenbaki saritua.



ARGAZKIA: XABI ZUGARRAMURDI

### Mendi mutilen besta

Bazuen jendeak gogoia eta ilusioa. Aterpek mendi mutilen besta berreskuratu zuen Errege Egunean. Bederatzi urte egin gabe egon ondotik, berriz ere egun borobila eta gogoangarria izan da Errege Egunekoa. Goizean Larretxea aita-semeen erakustaldia izan zen, eta ondotik 80 bazkaltiar bildu ziren Aterpen, eta Xebastian Lizaso eta Andoni Egaña bertsolarien konpainian jarraitu zuten. Aintzane eta Gurutze Pikabea trikitilariak ere arratsaldeko tartean alaitu zituzten. Luze joan zen arratsaldea, une politak, oroitzapen sakonak, irriak nahiz negar malkoak nahasiz. Tartean argazki erakusketa politaz ere gozatu zuten bertarutakoek, mendi mutilen ibilerak eta irudiak ikusiz. Horrek ere bati baino gehiagori emozioa sortarazi zion. Aste honetan ere ikusgai izanen da erakusketa.



ARGAZKIA: AMAIA APEZETXEA

### Hutsik egin gabe etorri dira hiru erregeak

Krisiakrisi, hiru Errege Magoek ez zuten hutsik egin eta euren laguntzaile guztiek urteroko bisita egin zuten. Trikitilariak bidea egiten zietela, plazan harrera egin zieten herritarrek eta Udalak, eta ondotik opariak banatu zituzten elizan.



ARGAZKIA: JOSEBA PIKABEA

### Areto Futboleko azpitxapeldunak

Baloiarekin ere ederki moldatzen direla erakutsi dute herriko mutil gazteek berriki. Berako Gabon Kopan azpitxapeldun izan baitziren areto futboleko.



MUS TXAPELKETA → ORTZIRAL HONETAN

## Euskal Herriko Mus Txapelketako kanporaketa bat Sunbillan egingen da

### Ulibeltzak Elkartean jokatu da

#### Jaione OTXANDORENA

Euskal Herriko Mus Txapelketako kanporaketa bat Sunbillan jokatu da ortziral honetan, hilak 22. Ulibeltzak Elkartean izanen da, 22:00etan. Izen-eman nahi duenak 21:30etik 22:00etara egin behar du.

Irabazten duen bikoteak martxoaren 6an izanen du hurrengo kanporaketa, Iruñeko Arrano elkartean 21:30ean. Finala, berriz, joan den urtean bezala, Seguran (Gipuzkoa) izanen da.

### Inauterietarako prest

Eguberriak pasatu onduko hemen ditugu inauteriak ate joka. Urtarri-leko azken asteburuan ospatuko dira. Urterobezala, ortziral goizeko gazteen gosariarekin emanen zaie hasiera, eta hortik aitzinera, hiru egunez haur, gazte nahiz helduek gozatzeko adina ekitaldi izanen dira. Ortziral eta larunbatean herri giroa izaten da nagusi eta igandeko karrozen desfilean, berriz, herritarrek ongi pasatzeaz gain, kanpoko jende dexente etortzen da azken asteotan lan aunitzez eta ilusioz egindako karrozak ikustera.



ARGAZKIAK: AINARA MINDEGIA

### Errege Magoek opariak banatu dituzte aurten ere

Ez zituen hotzak eta euriak beldurtu, eta Meltxor, Gaspar eta Baltasarrek urteroko bisita egin zuten. Neska-mutikoak gustura gelditu ziren opariekin.



ARGAZKA: JAIONE OTXANDORENA

Aurten ere moztorro ikusgarri eta «beldurgarriak» ikusteko aukera izanen dugu inauterietan.

**ELGORRIAGA**  
BALNEARIO - BAINUETXE

Dagoeneko 2010 denboraldi berriari hasiera eman diogu Etorri eta ezagutu gure eskaintza berria


**"Bigarren pertsona prezio erdian"**

- Masajeetan
- Edertasunean
- Jaletxea
- Terma eremuan
- Ostatuan

BALNEARIOA: 2010ko abuztuaren 31ra arte. Hona berriroko tratamenduak bertan izanen diren azken egunak dira. Bereziki badakizuezu, gure webguruari jarraituz gure berriak izango dituzte. Lehen izena baldin badago... Errotaletxearen 2010ko abuztuaren 31ra arte. Hona berriroko tratamenduak bertan izanen diren azken egunak dira. Bereziki badakizuezu, gure webguruari jarraituz gure berriak izango dituzte. Lehen izena baldin badago... ERROTALDEA: 2010ko abuztuaren 31ra arte. Hona berriroko tratamenduak bertan izanen diren azken egunak dira. Bereziki badakizuezu, gure webguruari jarraituz gure berriak izango dituzte. Lehen izena baldin badago...

Errotaldea z/g 31744 Elgorriaga (Nafarroa) Tel. 948 45 60 45 - www.balnearioelgorriaga.com

# DONEZTEBE



ARGAZKIA: ERREKA K.E.

## Garikoitz Atxak eskuratu zuen Errekaren Eguberrietako zarea

Errekak Eguberrietan zozketatzen duen zarea ederak badu jabea, Garikoitz Atxa almandoztarra, hain zuzen. Berak erosi du 4935 zenbakia, Marta Otermin eskubaloiko jokalaria jubenilaren eskutik.



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

## Eskaparate lehiaketako sariak banatu dira

Doneztebarrak Merkatarien elkarteak abenduaren 28an banatu zituen Herriko Etxean Eguberrietako kanpainaren barrenean antolatu zuen eskaparate lehiaketaren sariak. Miguel San Miguel alkateak eta Juana Mari Muñoz zinegotziak banatu zituzten diplomak. Lehen saria Lakar Etxearentzat izan zen eta Isabel Lakarrek hartu zuen; bigarren saria Cosas de Casa dendako Mari Carmen Larrintzarrek eskuratu zuen eta hirugarren postuko bi sari banatu ziren, Kukuka dendako Natalia eta Idoia Rekarerentzat eta Belen loredendako Ana Mari Arregirentzat. Honek, publikoaren saria ere eskuratu zuen.

**KIROLA** → ERREKA KIROL ELKARTEAK ANTOLATUTA

# Abian da eskuz binakako Malerrekako VIII. pilota txapelketa

7 kategoriatan, 192 bikote ari dira parte hartzen

### TIPI-TTAPA

192 bikotek eman diote hasiera aurten zortzigarrenez jokatzeko ari den eta Erreka elkarteak antolatzen duen Malerrekako eskuz binakako pilota txapelketari. Joan den astean jokatu ziren lehen partidak, eta final handiak otsailaren 27an jokatuko dira Donezteben.

Zazpi kategoriatan banatuta ari dira 192 bikoteak: benjaminetan 24 bikote ari dira eta partidak guztiak Legasako frontoian jokatuko dira. Alebinetan 32 bikote ari dira, eta maila honetako partidak Iruritan jokatuko dira. Infantiletan ere 32 dira bikoteak eta partidak Lesakan izanen dira; 24 bikote kadeteek Berako Eztegarra pilotalekuan jokatuko dituzte norgehiagokak. Jubenilak, 32 bikote, Donezteben ariko dira. Kategorria hauetako lehia guzti-



ARGAZKIA: ERREKA K.E.

## Urte bukaerako igoera Mendaurrera

Erreka elkarteak urte bukaerako ohitura bete eta Mendaurrera mendizaleendako igoera antolatu zuen abenduaren 31n. Goizean abiatu eta 70 bat lagun izan ziren kaxkoan. Batzuk, kirola eginez urtea agurtzeko gogo horrekin, arratsaldeko San Silvestre lasterketan ere parte hartu zuten.

ak igandetan jokatuko dira, 09:30ean hasita.

22 urtez beheitiko kategorian ariko diren 32

bikoteek asteazkenetan jokatuko dute, Beran, 16:30etik aitzinera. Eta elite mailako 16 bikote-

ak, egun eta ordu berean, baina Donezteben ariko dira, hauek ere asteazken arratsaldetan.

**BELARRA JATETXEA**

Arria DONETEBE 948 451 306 www.belarrajatetxea.com

**Gure Haragia**  
**Nuestra Carne**

**MERTZERIA**  
*Leñe*  
**LENTZERIA**

Tel: 948 627 614  
Beltzo Plaza, 10 - LESAKA



OSPAKIZUNAK → INAUTERIAK

## Urtarrilaren 29tik 31ra izanen dira inauteriak

Ortziral goizean elkartuko dira herritarrak auzoz-auzo puxkak biltzeko

**OHARRA**  
Inauterietako otorduetara joan nahi duenak izena Herriko Ostatuan eman behar du.

eta egun guzian bertze auzoetan ibiliko dira eskean. Eguna Irune eta Itxaso trikitilariak alaituko dute. Ilunabarrean aforia Herriko Ostatuan izanen da nahi duenaren tzat. Gaez Mikel Salaberrik dantzaldia eskainiko du.

Igandean, inauteriak akitzeko bazkari batean elkartuko dira herriko gazteak kontuak egin bidenabarrean. Arratsaldean haurrentzako txokolatada egingen da.

Otorduetara joateko Herriko Ostatuan izena eman behar da.

### Iñaki TELLETXEA

Inauterien garaia ailegatu da eta Donamarian ere hasi da jendea moztarok egiteko sabaietako trapu zaharrak astintzen. Aurtengoan urtarrilaren 29tik 31ra bitartean ospatuko dira. Ortziralean goiz-goizetik hasiko dira auzo ezberdinetan puxkak biltzen herriko trikitilariak lagunduta. Arratsean, afaldu ondotik, musika izanen da ordu tikiak arte.

Larunbatean, Herriko Ostatuan gosalduta ondoko, gazteek orgak hartu



ARGAZKIA: IÑAKI TELLETXEA

### Bazterrak zuri-zuri aspaldiko partez

Aspaldiko urteotan ez bezala, Donamarian ere elurra sekulako bistak utzi dizkigu. Herrian bertan 20 zentimetroko elur zama izan dugu. Nahiz eta zenbait tokitan mugitzeko arazoak izan, batzuentzako gozamen ederra suposatzen du elurteak. Horrela, haur eta helduak ederki gozatu dute elurretan jolasean.



ARGAZKIA: IÑAKI TELLETXEA

### Sei basurde egun bakarrean

Aurtengoan Erregeek hagitzen punteria ona ekarri die herriko ehiztariari. Urtarrilaren 6an, aspaldiko urteetan ez bezala, egun berean sei basurde ehizatu zituzten Donamarian. Ondoko argazkian ikus dezakegu zein kontent dagoen ehiztari kuadrila.



## Abonatu LESAKAra 2x1 KANPAINA

BI ABONATU BERRI, MATRIKULA BAT ETA HILABETE BAT DOAN

Baldintzak:  
- Urteko eta bakarkako abonatuentzat bakarrik.

Eskaintza honek 2010eko apirilaren 30a arte balio du

**Galdetu Kiroldagian dauden eskaintza guztien informazioa**

Informazio gehiago:  
Tel. 948 637 400 e-Posta: lesaka@urdisl.com



## ITUREN

OSPAKIZUNAK → INAUTERIAK URTARRILAREN 28TIK AITZINERA

# Eguberriak pasa berritan dagoeneko inauteriek gain-gainean ditugu

Aste baten bueltan inauteriak izanen ditugu

## Arkaitz MINDEGIA

Oraindik inauterietarako aste bat falta den arren, prestatzen hasiak dira herritarrak. Urtero bezala, ortzegunarekin, 28an, hasiko dira, lehendabiziko puxka bilte eta afariarekin. Ortzi-ralean atsedena hartu ondotik, larunbat arratsan berriro ere afaria izanen da. Igande goizean berriz puxkak bil-

du eta bazkari eta afariak izanen dira elkartee-tan.

Eta eskualdean garrantzitsuenak diren egunak astelehen eta astearteko mozorro eta joaldunen joan-etorriak izanen dira. Asteazkena lasaixeago joanen da eta denak elkarrekin bazkaldu ondotik etxez-etxe ibiliko dira.

## KONTUEN EGUNA

Otsailaren 6an, larunbata, Iturenen kontuen eguna izanen da, inauterietako azken eguna, hain zuzen. Urtero, bazkaria izaten da Herri-

ko Etxeko ganbaran eta bazkal aitzinetik aizkora apustua eta bertsolariak izaten dira plazan.

Aurtitzen, berriz, egun horretan, zaharren afaria izaten da eta nahiz eta zaharren afaria deitu, gazte, heldu eta xahar, denak elkartzen dira. Eta biharamunean, igandean kontuen eguna izaten da. Goizean kontuak egin eta eguerdian bazkariarekin amaitzen dira inauteriak.

Badakizue, hurbildu nahi baduzue, gonbidatuak zaudete gure herriko ohitura polit hau ezagutzera.

## ESKOLAN ERE PRESTATZEN

Eguberrietako oporen bueltan, hilaren 11n hasi ziren gaztetxoak eskolan burubelarri. Orain bi aste eskertan, inauterietako ortzi-raleko egitaraua prestatuko dute. Izan ere, ortziral goizeko lehen orduak ikasten pasatu ondotik, errekrea eta gero, ikasleak mozorroak prestatzen hasiko dira. Goiz bazkaldu, eta 14:00 aldera herriari itzulia emanen diote eta arratsaldean txokolada izanen dute. Joaldun gazteek ere ha-

rra jotzen dituzte joarak egun honetan, eta nola ez, musika doinuk ere ezin falta, herriko trikitilari eta panderojoleei esker.

## Ibintzako sariak

Ibintza Kultur Taldeak urtarrilaren 5ean egin zuen Eguberrietako zozketa. Lehenbiziko saria, zare eder bat, Ernesto Ariztegiarentzat izan da (1.351 zenb.); bigarrena, bainuetxerako bi sarre-rak Maritxu Etulainentzat (3.117 zenb.) eta eta hirugarrena, Altxunea erretegian afaria, Oskar Altxurentzat (1.948 zenb.)



ARGAZKIA: AINARA MINDEGIA

## Elurak zuri-zuri utzi ditu bazterrak

Karrika eta mendiak zuriz margotu zituen elurak urtarreko bigarren asteburuan, eta itxura ederra hartu zuten inguruek. Argazkian elurak Aurtitzen utzitako irudia ikus daiteke.

**zalain**  
JATEETEA - RESTAURANTE

Zalain auzoa z/g  
31780 Bera  
T. 948 631 106  
w. www.zalain.com

**zalain**

948 631 218  
Kanttonberr 1, BERA  
BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA

**KATEA-BIKE**

gaztelu scl  
iturgintza  
kalafakzioa - saneamendua - gasa

Tfnoa: 948 510 086 - 948 510 156  
Faxa: 948 610 856  
LEITZA

**CALVO**  
PLADUR

Deborazioa eskalolarekin  
Gainalde desmuntagarriak  
PLADUR sistema

PLADUR

☎ 696 128 958

UDALA → ARAUDI BERRIA

## Indarrean dago mendiko pisten erabilera arautzen duen ordenantza

Pistetatik kanpo ezin da ibilgailu motordunetan ibili

### Fermin ETXEKOLONEA

Natur ondarea zaindu eta erabiltzaileek pistak modu orekatuan erabiltzeko araudia onartu du Udalak, eta joan den asteaz geroztik, indarrean dago. Beraz, hemendik aurrera, pistetan gehie-

neko abiadura 25 kilometro ordukoa izanen da, eta pistetatik kanpo mendian ibilgailu motordunetan ibiltzea debekatua egonen da, baita pistetan 15 tonatik gorako ibilgailuetan ibiltzea ere, euria ari badu edo lohia dagoenean. Besteak beste, debeku horiek ageri dira araudi berrian.

### Ander Fuentes bertsotan

Larunbatean hasiko den



ARGAZKIAK: AINARA MINDEGIA

### Errege bezperako joare soinuek bidea egin diete inauteriei

Giro eta umore ederrean joan dira Eguberrietako ekitaldiak. Olentzero aurten ahuntz eta guzti etorri zen menditik eta haur, gazte zein gurasoekin gustura ibili zen kalejiran. Errege bezperako besta ere arrakastatsua izan zen oso, eta goizaldeko ordu txikiak arte luzatu zen. Goizean gaztetxoak ibili ziren joareak soinean, eta gauean helduek hartu zieten lekukoa, gainean ditugun inauteriei bidea irekiz.

Nafarroako Bertsolari Txapelketan parte hartuko du aurten ere Ander Fuentesek. Bere lehen saioa hilaren 31n egingen du Agoitzen. Zorte on!

### Mendaur Plana indarrean

Urte berriarekin batera, martxan dago Mendaur Plana, eta beraz, herritik Aurtizko arazte-

gi berrira eramaten da orain ura eta han araztutakoan berriz bueltan etortzen da. Horrekin batera, uraren tasak ere igo egin dira.

## BEINTZA-LABAIEN

OSPAKIZUNAK → INAUTERIAK

## Ortziral eta larunbat honetan izanen dira inauteriak

Otorduetara joateko izena aurretik ematea komeni da

### A. MINDEGIA/TTIPI-TTAPA

Ortziralean, hilak 22, Itur-Ondo elkartearen egingen den afariarekin hasiko dira inauteriak edo *iñoteak*. Afalondotik, berriz, Mikel Salaberrerekin dantzaldia izanen da goizalderara arte. Afarira joan na-

hi duenak lehenagotik izen-ematea komeni da, eta Itur-Ondon jarrita dau den zerrendetan.

Larunbatean, 10:00 aldera, gosaria izanen da. Ohi bezala, jendea mozo-rotua hurbilduko da gosaltzera eta Labaiengo auzotik poteoa hasiko da gero, etxez-etxe puxkak bilduz. Frantziskok alaituko ditu bazterrak.

Goiza etxez-etxe pasatu ondotik, 14:00 aldera Itur-Ondo elkartera



ARGAZKIA: AMAIA MINDEGIA

Aurten ere gisa guzietako mozorroak ikusiko dira inauterietan.

bueltatu eta bazkaria izanen da. Baseri batzuetara ere joanen dira eta arratsalde Beintzako auzoari emanen zaio buelta. Ondotik afaria izanen da Itur-Ondon. Goizalderara arte Frantziskoren musika doinuak izanen dira.

Etekez-etxe bildutako puxkak egun berean probaxten ez badira, behar-

bada, gelditzen denarekin eta bildutako diruarekin hurrengo asteburuan afaria egingen da.

### Dirulaguntza

Nafarroako Gobernuaren bidez, 54.000 euroko laguntza hartuko du Udalak Hirigintza Plana egiteko. Plana egitea 60.000 euro kostatzen

da, eta beraz, Gobernuak aurrekontuaren %90 subentzionatuko du.

Plana hiru urtetan egingen da: 2010ean kontratua sinatu eta lurraldearen okupazioaren estrategia eta modeloa onartuko dira; 2011n Planaren hasierako onepena egingen da eta 2012an behin behineko onarpena.

# EZKURRA

KIROLA → AIZKORA APUSTUA

## Otsailaren 21ean jokatuko da abenduan jokatzekoa zen aizkora apustua

Mindegia  
osaba-ilobak  
Joseba eta  
Juanitoren  
kontra ariko dira

**Fernando ETXEBERRIA**

Mikel Mindegiaren  
anaiak eta semeak,  
Txurdineako Joseba eta  
Iturengo Juanitoren

kontra abenduaren  
27an jokatu beharreko  
apostuaren berri eman  
genuen aurreko ale ba-  
tean. Baina Josebak  
min hartu zuelako apos-  
tua aste batzuk atzera-  
tu egin zen.


Dagoeneko, ordea,  
eguna eta tokia zehaztu  
dituzte: otsailaren  
21ean izanen da desa-  
fioa, 12:00etan Do-  
neztebeko frontoian.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

### Irudi berria Erakurrin

Duela bizpahiru hilabete, Erakurrin zegoen irudia hondatua zegoela ikusiz, Leitzako mendizale batek pilotari baten irudia jarri zuen. Handik egun batzutura Ezkurrakoek ere zaharra berritu zuten aizkora baten irudiarekin. Izan ere, Ezkurrako seme gehienak zuhaitz mozten aritu dira Iratin, Frantzi- an eta Kanadan eta aizkora da kirolik maitatuena. Aizkolari handiak ere eman ditu Ezkurrak, Fausto, Joanes edo Mindegia anaiak, besteak beste. Argazkian ageri denez, Ezkurrakoek jarritako irudia Leitzakoena baino altuagoa da. Bertsolariak esan- go lukeen moduan, «behingoz ezkurdarrak leitza- rrak baino handiagoak izan dituk».



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

### Elurra urte zaharrea eta elurra urte berria

Elurra utzi zuen urte zaharrak eta elurra ekarri digu urte berriak. Alde batetik, joan den abenduaren 19ko ekaitzak elurraz gain, haizete indartsua ekarri zuen. Teila- tuak altxatu, leihoak hautsi eta zuhaitzak erori ziren errepidera. Horma eta elurra ere pilatu ziren errepidean, eta horrek arriskutsu bihurtu zuen bidea. Baina bertze aldetik, urte berriak ere elurte handia ekarri zuen. Urtarrilaren 8tik 10erako aste- buruan gogotik bota zuen eta ederki zuritu zituen bazterrak. Goiko argazkian he- rria elurtua ageri da, eta behekoan, abenduko haizeak frontoiaren teilatua nola eraman zuen ikus daiteke, baita etxe bateko kontraleihoarekin zer egin zuen ere.

## APARAN, S.A.

**BRIKOLAJA eta ZURAK**

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagaiak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...



Tel: 948 456 080  
Fax: 948 450 334  
**DONEZTEBE**

# LEGASA

ARGAZKI ZAHARREN BILDUMA → OTSAILEAN

## Herriko argazki zaharren erakusketa egingen da otsailean

Hiru argazki ederrenek diru-sariak jasoko dituzte

TTIPI-TTAPA | LEGASA

Otsailean, Legasako argazki zaharren erakusketa bat egin nahi da. Argazkiak edozein gaitakoak izaten ahal dira, adibidez, ezkontzak, etxeak, bestak, inaute-riak, zerri-hiltzea, mendiak, bordak, dantzak...

Erakusketaz gain, hiru argazki politenek diru sariak izanen dituzte. Honetaz gain, parte-hartzaile guztien artean, argazki bilduma bat zozketatuko da eta bertze argazki bilduma bat otsailean botaketan parte hartzen dutenekin.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Ez dira oraingo argazkiak, ez horixe. Bada, etxean gisa honetako edo bertzelako argazki zaharrak izan eta utziz gero, erakusketa osatua eta ederra aterako da.

**ARGAZKIAK BILTZEKO**  
Argazkiak biltzeko bi modu daude: batetik, urtarrilaren 25ean etxetik pasako dira hartzera eta bertzetik, [legasa@hotmail.com](mailto:legasa@hotmail.com) helbidera bidali.

### DIGITALIZATU

Aukera probetuz, argazki zaharrak digitalizatu eta Kontzejuan utziko dira, herritarren eskura, eta kopiak atera ahal izateko. Beraz, zenbat

eta argazki gehiago utzi, orduan eta lan ederragoa lortuko da.

Argazkiak uzteko edo bidaltzeko, bi aukera daude: alde batetik, dituzuen argazkiak sobre

batean sartu, izena paratu eta zuen etxetik pasako dira jasotzera urtarrilaren 25ean (astelehena). Edo bertzela, [legasa@hotmail.com](mailto:legasa@hotmail.com) helbidera bidali.

### FLASH

#### Kontzejuko bilera irekia

Otsailaren 6an, larunbatarekin, 16:00etan, eskolako gimnasioan Kontzejuko bilera irekia egingen da, Kontzejuko berriki erosi duen apezaren etxeari buruz solasteko. Bilera informatiboa izanen da eta herritarrei azalduko zaie, zer egin nahi den, dauden epeak, dirulaguntzak... Lerro hauen bidez, Kontzejuko herritarrei bilera joateko eta parte hartzeko deia egin nahi izan die, hartara ikuspuntu desberdinak jasoko eta baloratzeko.

#### Kuku elkartearen 2009ko kontuen bilera

Igande honetan, urtarrilak 24, Kuku elkartearen urteko bilera egingen da. Lehenengo denaldia 18:30erako egingen da eta bigarrena 19:00etarako.

#### Batuka eta pilates ikastaroak

Eguberrietako oporrak akitu eta gero, batuka eta pilates klaseak berri ere hasi dira. Batuka astelehen eta asteazken arratsaldetan izaten da eta pilates asteazkenetan.

**PAGOLA**  
EMBUTIDOS  
artesanos desde  
1940

Alzateko plaza, 2 • BERA • Tel. 948 630 054

**elika**  
Dietetika • elikadura

Itxar Andueza Larra  
Itza, 6 behe • BERA • Tel. 948 631 283 • [elikabera@hotmail.com](mailto:elikabera@hotmail.com)

**pikaNa**  
HARATEGIA / URDAITEGIA

Tel/Fax: 948 630 018  
Karttontzori 12 • BERA

**ola**  
SAGARDOTEGIA

- 250 lagun eserita
- Klimatizazioa
- Sagardotegiko menua

102 Meaka eztoa  
20304 IRUN  
Tel. 943 623 130

# BERTSOLARITZA

NAFARROAKO BERTSOLARI TXAPELKETA → 39. EDIZIOA

## 27 bertsolarik parte hartuko dute larunbat honetan hasiko den Nafarroako Txapelketan

Bigarren saioa igandean Sunbillan egingen da

### TTIPI-TTAPA

27 bertsolarik hartuko dute parte Nafarroako 39. Bertsolari Txapelketan. Larunbat honetan Aizarotzen jokatuko den lehen azken-laurdenean emanen zaio hasiera, eta finala martxoaren 20an Lesakako pilotalekuan jokatuko da.

Hori baino lehen, lau azken-laurden izanen dira, seina bertsolarirekin, eta hauetatik 15 finalaurrekoetara sailkatuko dira, azken-laurden bakoitzeko lehen sailkatua eta puntuaziorik onena eskuratzen duten 11 lagun. Hiru finalaurreko jokatuko dira seina bertsolarirekin eta finalaurreko bakoitzeko irabazlea eta puntuaziorik onena eskuratzen duten borte borte sailkatuko dira finalerako.

### AZKEN-LAUDENAK

Larunbat honetan, hilak 23, Aizarotzen Basaburuko Kultur Etxean egingen den lehen saioan, sei bertsolariok ariko dira: **Julen Zelaieta**, **Bittor Elizagoien**, **Aimar Karrika**, **Iker Gorosterrazu**, **Oier Lakuntza** eta **Arkaitz Goikoetxea**.

Bigarren azken-laurdena igandean, hilak 24, izanen da Sunbillako Ulibeltza Elkartean. **Xabier Legarreta**, **Aritz Saragueta**, **Iñaki Aleman**, **Iñigo Ibarra**, **Ekaitz Astiz** eta **Egoitz Gorosterrazu** ariko dira.

Hirugarren azken-laurdena urtarrilaren 31n jokatuko da Agoitzeko Kultur Etxean. Bertsolari hauen txanda izanen da: **Ander Fuentes Itturri**, **Miguel Mari Elozegi Luze**, **Saioa Alkaiza**, **Diego Riaño**, **Oskar**

**Estanga** eta **Jose Luis Barberia Zili**.

Laugarren eta azken laurdenean sei hauek ariko dira: **Eneko Lazkoz**, **Jon Elizetxe**, **Alazne Untxalo**, **Xabier Terreros**, **Estitxu Arozena** eta **Ioar Tainta**. Garesko udaletxe-ko erabilera anitzeko aretoan izanen da emanaldia.

### FINALAURREKOAK

Lehenbiziko finalaurrekoa otsailaren 20an egingen da Etxarri Aranazko Kultur Etxean eta Julio Sotorekin batera, azken-laurdenetako borte bertsolari ariko dira.

Bigarren finalaurrekoan, otsailaren 27an Iruritako Gizarte Bilgunean egingen denean, **Iñigo Olaetxearekin** batera azken-laurdenetako berte borte bertsolari ariko dira.

Hirugarren finalaurrekoa Atarrabiako Indurain Anaiak kiroldegian jokatuko da. Honetan, **Jon Barberenarekin** batera, azken-laurdenetako borte bertsolari ariko dira.

Martxoaren 20an Lesakan egingen den finalean, azkenik, zortzi bertsolari onenak lehiatuko dira. Saio guztiak 17:30ean hasiko dira.

### TXAPELDUNAREN ATSEDENA

Iaz baino bi parte-hartzaile gehiago ariko dira aurtengo txapelketan. Lau bertsolari (Egoitz Gorosterrazu, Ioar Tainta, Arkaitz Goikoetxea eta Jose Luis Barberia) lehen aldiz ariko dira. Hortaz aparte, atsedena hartu ondotik, **Oskar Estanga** eta **Estitxu Arozena** berriz taula gainean ikusiko ditugu, eta joan den urtean parte hartu zutenen artean, **Xabier Silveira**, **Erika Lagoma**, **Joxe Juan Zubieta Etxabe** eta **Garaxi Taberna** ez dira ariko.

NAFARROAKO  
BERTSOLARI  
TXAPELKETA

10

www.nafarroakotxapelketa.com



Azken-laurdena:

---

Urtarrilaren 24an

SUNBILLAN

Ulibeltza Elkartean

17:30ean

Xabier Legarreta

Aritz Saragueta

Iñaki Aleman

Iñigo Ibarra

Ekaitz Astiz

Egoitz Gorosterrazu

Nafarroako  
Bertsolari  
Elkartea



Laguntzailea:



ttipi-ttapa

*IÑAUTERIETAKO GEHIGARRIKO  
(27 ORRIALDEA)*

*AZKEN ORRIALDEA  
(23-27)*

*EZ FILMATU!!!!*

# BERTIZ

TURISMOA → PARTZUERGOAREN ESKUTIK

## Baztan-Urdazubiko Donejakue Bideari buruzko gida argitaratu da

Euskaraz, gaztelaraz eta frantsesez idatzia

TTIPI-TTAPA | BERTIZ

Bertzko Partzuergo Turistikoak, produktu turistikoaren garapenerako Nafarroako Gobernuak laguntzarekin, Baionatik Urdazubin barna Iruñera doan Donejakue bideko zatiaren liburuxka

bat argitaratu du.

Urdazubi-Baztango Donejakue Bideko lagunen elkarteari esker, orografia errazagoa izateagatik Erdi Aroan gehien erabili zen bide hau berreskuratu ahal izan da. Olagueko aterpea aurtentzabalduta eta Iruñera arteko etapa guztiak burutzeko aukera dago.

Argitalpenean, sarre-ara historiko bat eta Baionatik Iruña arteko herri nagusien deskribape-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Donejakue Bidearen barnean, Berroetako aterpea 2008an inauguratu zuten.

na aurkezten da. Bi udalek argitalpenean kolaboratu dute bertze dozena bat baliabide turistikoaren publikizatearekin batera. Maketatze erakargarri bat eta argazki aukeraketa on bat egin da eta informazio zehatza *rutasnavarra.com*-tik hartu da.

Hiru bertsio argitaratu dira: euskaraz, gaztelaraz eta frantsesez. Nafarroako Turismo bulegoetan eta Bidea igarotzen den informazio puntu nagusietan banatu dira. Horrez gain, langilegoak publikoari banatuko dio, parte hartuko duen turismo ferietan eta

baliabide honen bidez, pertsona gehiago gure zonaldera hurbiltzea espero da.

Bertz Partzuergoko [www.consociobertz.org](http://www.consociobertz.org) web orriak atal berezi bat du bidearen informazioarekin eta gida eskuragarri du, eta emailaz nahiz telefonoz eska daiteke.

*Etorkizuna sor dezagun*








**HOBETI BIZITZEN LAGUNTZEN DIZUN ENERGIA**

Urte berri honetan, Kanalizatutako Gas Propanoa zure herrira eramateko lan egiten jarraituko dugu Repsol-en. Zure etxeko ongizatea hobetzeko etenik gabeko energia eroso, azkar eta ekonomikoa. Kontrata ezazu sukalderako gasaz, berogailuaz eta ur beroaz nahi duzunean gozatzeko. Etxean hobeki sentitzeko berokuntza sistema.

Informazio gehiago **901 100 125** telefonora deituz edo [repsol.com](http://repsol.com) orrian

**REPSOL GAS**

Repsol-en kanalizatutako gas sare geografikoki mugatuta dago.  
Repsol-en gas sarearen barne dauden herriak kontsulta itzazu.





# GOIZUETA

KIROLA → ERREMONTÉ PROFESIONALA

## 'Tregarredes' en oinordekoa sortu da

Aritz Zubirik debutatu du erremonte profesionalan Salaberria zenak utzita 40 urteren burura

### Esteban AROTZENA

la 40 urte igaro dira Sutebigarrek Miel Salaberriak erremonte profesionala utzi, eta beste herritar batek, Aritz Zubirik, modalitate berean debutatu duen bitartean. Epe luze xamarra, urte hauetan esku pilotak herrian eman dituen fruituekin alderatzen baldin badugu.

Salaberria zenari *Tregarredes* deitzen zio-

ten, frontoietan sarera ziohoazen pilota gaiztoak buenara eramateko zuten trebeziagatik. Ez omen zen punta-puntako erremontelaria izan, baina ehunka partida jokatu zituen 1950etik 1970era, Urumea eta Euskal Jai frontoietan iaguztiak. Galarreta ere ezagutu zuen, baina bere ibilbide profesionalako azke sei hila-beteetan bakarrik jokatu zuen Hernanin. 2001ean hil zen Miel 73 urterekin.

Aritz Zubirik, bestalde, abenduaren 19an debutatu zuen Galarretan, norgehiagoka irabaziz, gainera. Geroztik, astean partida pare bat jokatu du, erditsuk irabaziz. Aritz -23 urte-, orain dela sei urte hasi zen Galarretako erremonte es-



ARGAZKIA: HERNANIKO KRONIKA

Abrego haundiari egindako omenaldi batean, atzean ageri da *Tregarredes*. Eskuinean, berriz, Aritz Zubiri gaztea.

kolan, kuadrillako batek, Urtzi Lujanbiok, animatuta. Ibilbide oparoa egin du afizionatuetan, Gravn, Gipuzkoakoa, eta Euskal Herriko txapelketak irabazi baititu, besteak beste.

Teknika hobetu, kolpe gehiago hartu eta ondorioz, atzelari on bat izatera ailegatzea da Zubiriren helburua. Ea ba *Tregarredes*ek adina urte jokatzeke zoria duen lanbidez Hernaniko Udaleko enplegatua den gazteak.

### Guraso Eskolaren hitzaldiak

Interes haundiko hitz-

tzaldiak antolatu ditu Guraso Eskolak aurtengo negurako. As-telehen honetan hasi zen Gabi Goiaren eskutik Adimen emozionalari buruzko hiru saioko zikloa. Beste biak hil honen 25ean eta otsailaren 1ean burutuko dira, 15:00etatik 17:00etara. Martxoan zehar beste hiru hitzaldi egingen dira, baina hauen berri aurre-



ra-  
go  
ema-  
nen dugu.

Hautzaindegi zerbitzua ere antolatu da hitzaldietara doazen gurasoen umeentzat.

edredoi fundak  
albornozak  
edredoi nordikoak  
ohe estalkiak  
mahnalireak  
mahnalak  
kuxinak  
toailak

1951tik  
**Casa Cambra**  
lentzeria-etxea

**Aste txuria. Merkealdiak.**  
**Urtarrilaren 15etik aurrera**

Tafalla, 13 • IRUÑEA 948 230 634

## LEITZA

OSPAKIZUNAK → INAUTERIAK

# Larunbatean hasi eta asteartean bukatuko dira ihoteak

Igandean atsaure eta gurdien txanda izanen da

Asier IMAZ/TIPI-TTAPA

Egun gutxi barru hasiko dira inauteriak edo ihoteak. Larunbat eguerdian Aurrera elkartearen eginen den bazkarian, hain zuzen. Hortik aurrera, asteartera arte haur, gazte zein helduek izanen dute gozatzeko aukera. Xehetasunak aurreko alean aurkituko dituzue.

## 2010ean ere zaharberritzen

Udaletxeko artxiboa berritzea izan zen 2009an Udalak bideratutako lan nagusietako bat, baita Plazaolako bidean lurzorua kopondu eta hesiak paratzea ere. Urte berriari begira ere, zaharberritzen segitu nahi du. Espainiako Gobernuak abian paratu duen E planean dirulaguntza eskatu-

ko du Udalak, eta badi-rudi, eskolako azken bi solairuak berritzea dela esku artean darabilen proiektuetako bat.

## Hiru herritar bertsotan

Diego Riaño, Migel Mari Elozegi Luze eta Jose Luis Barberia Zili, hiru leitzar hauek ariko dira aurtengo Nafarroako Bertsolari Txapelketan. Lehen ere ibiliak dira Riaño eta Luze txapelketan, baina Ziliarentzat lehen aldiz izanen da. Hiruak urtarrilaren 31n Agoitzen izanen den saioan ariko dira.

## Perurena II.ak ezin

Saiatu zen, baina ezin. Inaxio Perurena bere marka hobetu ezinik gelditu zen joan den abenduaren 31n Asteasun. 300 kiloko harriarekin ahalegin du zen, eta lortzear egon zen, baina harria sorbalda gainean zuela, lurre-ra erori eta hautsi egin zitzaion.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Ni ere pilotari txapelketako partidak urtea hasteko

Ni ere pilotari nesken paleta goma txapelketako partidak jokatu ziren ilbeltzaren 3an Amazabalen. Alebin mailan, Uxue Murillo eta Garbiñe Larreak 18 eta 4 irabazi zieten Ariane Huizi eta Ariane Atxari. Infantil mailan hiru partida jokatu ziren. Oihane Carrasco eta Maite Silesek 22 eta 12 irabazi zieten Amaiur Lakuntza eta Ekiñe Petriatiri; Ainara L. Zaranton eta Olaia Eizagirrek 22 eta 9 irabazi zieten Irati Lakuntza eta Amaia Nagoreri eta Saioa Gonzalez eta Lide Huitzik 22 eta 4 irabazi zieten Andrea Casares eta Amaia Ezkurdiari. Senior kategorian, azkenik, Susana Muneta eta Asun Diezek 30 eta 17 irabazi zieten Maite Urtasun eta Maria Urtasun-i eta Rebeka Contin eta Iera Agirrek 30 eta 15 irabazi zieten Saioa Aristorena eta Judith Etxarriri. Beste aldetik, urte bikaina borobiltzeko Zaldibarko txapelketa, 22 urtez azpiko kategorian irabazi zuen abenduaren 31n Jon Jaunarenak. 22 eta 2 irabazi zion Garraldari.

## Merkatarien Eguberrietako zozketaren bederatziz saririk zazpi herrian

Ilbeltzaren 5ean egin zituen Kaxka-beltza merkatarik elkarre sortu berriak Eguberrietako zozketak, eta bederatziz sari banatu zituen. Bederatziz saririk zazpi leitzarrentzat izan ziren. 500 euroko lehen saria Amaia arraindegia emana, Jesus M<sup>a</sup> Irureta-entzat (Leitza) izan zen; 400 euroko bigarrena Guria tailerrak eman zuen eta Jon Pellejerorentzat (Areso) izan zen; 300 euroko hirugarrena Arzallus harategiak eman zuen eta Axun Alsuak

(Leitza) hartu zuen; 100 euroko sei sariak honela banatu ziren: Etxe-tresnak-ek emana M<sup>a</sup> Jesus Goikoetxearentzat (Leitza) izan zen; Torrea Herrikoak emana Jesus Azurmendirentzat (Leitza); Zurlan zurgindegikoa Marisol Perezentzat (Iruña); Urkiola harategikoa Patxi Ugarterentzat (Leitza); Leitza garajekoa Mikel Ilarregirentzat (Leitza) eta Perurena harategian banatutakoa Lurdes Eizagirrentzat (Leitza).



**Behetik**  
Añorga-Ixiki, 14 behea  
T. 943 368 781  
671 073 888  
[www.behetik.com](http://www.behetik.com)

## Eskallerrak igotzea... ez da oztopo!





plataformak • igogailu bereziak • aulki bereziak...

EGUTEGIA → HERRIKO ARGAZKIEKIN

## 2010eko egutegi berria Benta-Berrin eta Kontsejun dago salgai

Lehiaketatik aukeratutako argazkiekin osatu da

### Ainhoa eta Kontxi

San Martinetan antolatzen II. argazki lehiaketan aukeratutako irudiak erabiliz, egutegia egin dute gazteek eta erosi nahi duenak salgai dauka Benta-Berrin eta Kontsejun. Erabilitako irudiak hauek izan dira: *Gertra bete-betan, 1938/39. Suroko eskola (Mairtziko Borda)* - Marina Claver;

*Karnabalak* - Mikel Ruiz; *Euntzingo harriya* - M<sup>a</sup> Jesus Zugarramurdi; *Eroritzen ez diren hostoak* - Pino Vicedo; *Gure estalpetik naturaren estalkira* - Xabi Kueto; *Maite ditut maite gure bazterrak II* - Josu Sarobe; *Pilota partida* - Mikel Ruiz; *Olasoko atarian ezkontza* - Plaza; *herriko umeak (Juanikene) eta etorkixunaren txilikitutik; bai gustora!* - Kontxi Klaber eta *Denborara pasa* - Iñaki Egurza.

**Txokolatea txurroekin Kontsejun**  
Bigarren urtez Kontse-

juko Imanol eta Ainhoak txokolatea txurroekin prestatu zuten, «Joxemiren laguntzarekin», herriko txiki eta gurasoentzat. Olentzerotako ordain-sari bezala eskaini zuten merienda Urtezahar egunean. Urteari amaiera on bat emateko seinalea da batzuentzat, eta beraz, eskerrik asko. Eskerrak, gisa berean, etxeetan hain eskuzabal hartu gintuztelako eta barkamenak Benta-berri auzokoei kale egiteagatik, haurtxoak baitziren protagonista eta beraiek markatu zuten erritmoa. Sas-



AINHOA ANSAK UTZITAKO ARGAZKIA

Haxe da egutegi berriaren azala.

koa, berriz, Juanikoenekoei tokatu zitzaien.

### Inauteriak

Aurten ere larunbatare-

kin izango dira inauteriak, otsailaren 6an. Urtero moduan, Suro auzoan emango zaie hasiera 09:00 aldera, animatu!

## ARESO

IKASTAROA → TEKNOLOGIA BERRIAK

## Informatika ikastaroan izen-emateko epea urtarril bukaeran itxiko da

Jendea behar da ikastaroa martxan jartzeko

### Juana Mari SAIZAR

Iaz ere aukera eman zen arren, ez zen talderik atera eta aurten berriro ere informatika eta Internet lantzeko hastapen ikastaroa eta tailerra martxan jarri nahi da, emakumeei zuzendua izango litzatekeena. Tailerrerako finkatu diren

orduak eta egunak jada apuntatuak daudenean proposatuak dira, eta teknikariak onartzeko prest daude. Baina horretarako ea jende gehiago animatzen den, eta bide batez, ea ikasten dugun herrian proposatzen zaizkigun baliabideak erabiltzen.

Apuntatzeko epea urtarril bukaera arte luzatuko da eta infomazio gehiagorako udaletxera edo 012 telefonora deitu behar da.



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

### Kirol anitzeko gunea prest

Ederki gelditu da kirol anitzeko gunea, eskolaren atzekaldean dagoena. Hainbat kirol egiteko aukera ematen du.

### Elurra eta izotza

Berriro ere eguraldia dugu hizketagai, eta izotz ikaragarriak egiten ditueenez, Udalak herriko lane-tarako kotxeari eranskin bat jarri behar dio atzekaldean, gatza zabaltze-

ko makina, hain zuzen.

Zaragoza aldetik erositako da gatza, 25 kiloko zakuetan, baina garraioaren prezioa merketzeko beste udal batekin hizketan ari da gastuak erdibana banatzeko.

### ETB Aresoko elizan

Hilaren 16an ETBkoak Aresoko meza grabatu zuen. Bigarren aldia da herrira etortzen direla, eta oraingoan eliza berritua eta erretabloa kolorez bete aurkitu dute.

# BAZTAN

BATZAR NAGUSIAK → URTEKO LEHEN BILKURA

## Amaiurko Munoa inguruan zundaketa lanak egiteko baimena eman du Batzar Nagusiak



ARGAZKIA. ALICIA DEL CASTILLO

Batzan ez dago salgai edo Komunalak defendatu zioten paperak agertu zituzten ibeltzaren 4ko bilkuran amaiurtarrek eta bertze zenbait baztandarrek.

Balleko ondasunak ezagutzea garapenerako ona dela uste du NaBaik

### TIPI-TTAPA

Baztango Batzar Nagusiak urtarrilaren 4an egindako urteko lehen bilkuran baimena eman zuten Amaiurko Munoa inguruan, Azysa enpresak bultzatutako zundaketa lanak egiteko. Lau orduko bilkuraren ondotik hartu zuen erabakia, bozketa sekretuaren ondotik. Amaiurko herriak tramiteak bertan behera uzteko eskatu zuen Julian Rekalde alkatearen bidez. Abenduan 5ean egindako batzarran, harrobiaren galde-

ketan, botoa eman zuten 199 amaiurtarretatik (229k zuten bozkatzeko eskubidea) 189 lagunek ezezkoa eman zuten, boto-emaileen %95ak, alegia. Amaiurtarren kontrako jarrera eraman zuten bilkurara alkateak eta «amaiurtarren erditsua inguru horretan bizi dela» gogorarazi zuen. *Komunalak defenditu!* edo *Batzan ez dago salgai* zioten paperak agertu zituzten bizilagunek.

NaBaik udal taldeak, ordea, bertze proposamena aurkeztu zuen Batzar Nagusian eta zundaketa egitea onartzeko eskatu zuen, «balleko ondasunak ezagutzea gure garapenerako beharrezkoa delako». Dena dela, zundaketarako baimena Nafarroako Gobernuaren ardura dela argitu zuen NaBaik. UPNko

zinegotziak ere zundaketa onartzearen alde agertu ziren. Denera 19 boto izan ziren baimena

ematearen alde, 8 kontra eta 2 zurian.

Bertzalde, basurde kotoa zabaltzearen kon-

tra agertu zen Batzar Nagusia, amaiurtarrek bozketa hartutako erabakia bere gain hartuz.

## 31.382 euroko irabaziekin akitu dute 2009a Elizondon

Urteko lehen batzarra egin zuen Elizondoko herriak Errege Egunean, eta azaldutako datuen arabera, 31.382 euroko irabaziekin akitu zuen 2009a. 121.820 euroko dirusarrerak izan zituen eta 90.438 euroko gastuak. Gastuen artean, handiena, Santiago bes-ten antolaketa izan zen, 61.632 euro: «13.667 euro plazako musika, 11.658 karrikako animazioa, 6.954 haurren ekitaldiak eta 5.124 Mendiarte graffitiak», erran zuen Xabi Torres alkateak. Besten aurrekontua «nabarmen» jautsi dela ere azpimarratu zuen, «kuadrillen parte-hartzeari esker». Programako publizitatearekin 12.370 euroko sarrerak izan ziren; Udalak 10.890 euro jarri zituen eta postuak jarri zituztenei 3.870 euro kobratu zitzaizki-

en. Bertze sarrerei dagokienez, herritarren kuotekin 38.465 euro lortu ziren, oraindik 204 errezibo (7.878 euro) kobratzeko izan arren; ferietan 21.864 euroko sarrerak izan ziren eta ortzegunetako merkatuan 4.382 eurokoak. Hilerriko gastuen bigarren seihilekoari dagozkien 2.103 euro gelditzen dira orain ordaintzeko, baina hilerririk 2.800 euroko superabita eman zuen iaz. Aipatu, hilerria kudeatzen duen Cemendena enpresarekin bi urterako luzatuko dela kontratua. Superabitarekin zer egin galdetuta, zenbait proposamen aditu ziren: herriko jabetza guzien paperak egin, Herriko Etxearen teilatua moldatu, Iriarte frontoia moldatu, musika bandak entsaiatzen duen aretoa moldatu...

**BAZTAN BIDASOAKO sagardotegiak**

LARRALDEA      LINDDURRENBORDA

**LARRALDEA eta LINDDURRENBORDA**

Dolarea  
Txotx denboraldia irekia  
Eskualdean egindako sagardoa

LARRALDEA      LINDDURRENBORDA  
Dolarea sagar      Lekarritz      Nafar sagar      LESAKA  
948 402121      926 414317      948 402122

Okindegia      Jatetxea

**Uxoa**

OKINDEGIA: Ogi artisaua, egunekoa eta txapata  
JATETXEA: Menua eta Karta (asteburuetan)  
Especialitatea parrillan erretako jakietan  
Enkargatuz gero, bildotsa ogi-labearen errea,  
goxo goxoa!

Ordoki Industrialdea  
Tfn: 948 453 403  
31713 ARIZKUN

**KIROLA** → LEHEN ALDIZ EGIN DA ELIZONDON

# San Silvestrea antolatuz ezagutzera eman da Baztan K.E.ko atletismo saila



UTZITAKO ARGAZKIAK

Alberto Barberena eta Esther Urrutia izan ziren garaileak

tetxo mailan (1996tik 1999ra jaiok); 16 haur mailan (2000 eta 2002 urteen artean jaiok) eta 26 ttikienen mailan (2003-2005 urte artekoak).

Helduen mailan, Alberto Barberena elizondarra nagusitu zen, 4 kilometro pasatuxeak zituen ibilbidea 12 minutu eta 27 segunduan egin ez. Unai Barazabal azpilkuetarrak eta Angel Mari Garate iruritarrak osatu zuten podiuma. Nesketan Esther Urrutia nagusitu zen, Izaskun Zabaleta eta Marijo Gar-

Giro ederra irteeran eta bikaina sari banaketaren ondotik.

mendiaren aitzinetik. 1996 eta 1999 urteen artean jaiotako en gazte-txo en mailan Sergio Oskoz gailendu zen.

Baina kirola ez ezik besta giroa ere nabarmendu zen, animazio handia izan baitzen eta jende aunitz Foru Plazan eta Txokoto eta Antxitonea inguruan. Korrikalari batzuk mozorrotuak atera ziren, bertze batzuk koadrilla-ka apostuak eginak ziztuzten... Aipatzekoa izan zen Jose Javier Elizain-

**SAILKAPENA**

Alberto Barberena	12:27
Unai Barazabal	12:43
Angel M <sup>a</sup> Garate	13:14
Felix Santesteban	13:45
Koldo Ruiz	13:52
Pello Urrutia	13:55
Fermin Iparragirre	14:01
Iñaki Zabaleta	14:09
Xabier Altzugarai	14:23
Mikel Yanzi	14:25

**SAILKAPENA**

Esther Urrutia	18:33
Izaskun Zabaleta	19:02
Marijo Garmendia	19:06
Maria Mendiburu	19:10
Amaia Meoki	19:27
Patrizia Leiza	19:30
Nerea Lizasoain	19:44
Iratxe Arregi	19:50
Maite Martiartu	20:02
Iosune Ortega	20:04

tzin iruritarra buru duen Baztan Kirol Elkarteko atletismo saileko neska-mutilek antolaketan

egindako lana, arratsaldeko lehen orduetatik aritu baitziren gauzak prestatzen.

**Pierresenea**  
OSTATU · JATETXEA  
Jaki tipikoak · Etxeko giroa  
Burliztezu ezuzoa · Tfnoa: 948 582 043  
ORONÓZ · MUGAIRI

**Eskisari**  
Jaiak  
Jaime Urrutia  
Tfnoa: 948 580 013  
ELIZONDO

aroztegia 1890az geroztik  
GARAJEKO ATE SEKZIONALAK  
ATAKAK HESIAK  
LANGAK BALKOIAK

**Arotxa**  
Miguel Azcárraga  
Kale Nagusia, 6 31730 Irurita  
Tel. 948 581 418 / 650 532 073  
marotxa@terra.es

**VENTA PEIO**

<b>Bera (Administratibua)</b> 31790 BERNA Tfn: 948 420 130 Fax: 948 421 533	<b>Dantzarren</b> 31712 LARREA Tfn: 948 590 300 Fax: 948 591 440	<b>Elizondo</b> 31790 BERNA Tfn: 948 430 710 Fax: 948 431 300	<b>Lasaia</b> 31000 LASAIA Tfn: 948 790 010 Fax: 948 790 301
--	---	--	---

# BAZTAN

UDALA → URTEKO LEHEN BILKURA

## 9,97 milioi euroko aurrekontua onartu du Udalak 2010erako

Inbertsio nagusia Elizondoko plazan egindako

### OHIKO DIRU-SAILAK

**Baztan Ikastolak 667.288,87 euro hartuko ditu eta Francisco Joakin Iriarte zahar-etxeak 115.300 euro.**

### TTIPI-TTAPA

Urte berriari begira, 9.974.283,87 euroko aurrekontu orokorra onartu du Udalak. Horren barne, Baztan Ikastolari 667.288,87 euro bideratuko dizkio eta Francisco Joakin Iriarte zahar-etxearentzat 115.300 euro emanen ditu.

Gainerakoan, inbertsio haundiena Elizondoko plazako lanetan egindako da, 600.000 euro, hain zuzen. Almandozko zeharbidea egiteko 360.000 euro onartu ditu Udalak eta obra honetan, gainerako zatia Nafarroako Gobernuak ordainduko du. Elizondoko Herriko Etxeko teilatua konpontzeko 115.000 euro izanen dira, eta Amaiurko Herriko Etxeko teilaturako, berriz, 130.000 euro.

Herriko eskolan 120.000 euro gastatuko dira eta liburutegi berriko altzarrietan 90.000 eu-

ro. Hiltegian ere zenbait obra egindako dira eta horretarako 100.000 euroko diru-saila hitzartu du Udalak eta Berroetako frontoia berritzeko 40.000 eurokoa.

Kultur Etxean konponketa ttiki batzuk ere egin nahi ditu Udalak eta horretarako 10.000 euro bideratuko dira. Ordenantzak zaharberritzen segitzeko eta herritarren parte-hartzerako 10.100 euro adostu ditu, eta oihaneko lanetarako, azkenik, 300.000 euro.

### 30 toki gehiago zahar etxean

5.294.402 euroko inbertsioa egindako Nafarroako Gobernuak Nafarroako 12 zahar-etxetan 223 leku gehiago hitzartuko. Dirulaguntza jasoko dutenen artean dago Elizondoko zahar-etxea, eta horren bidez, 30 toki gehiago egindako dira.



ARGAZKIAK: ARANTXA GAMIO ETA XABI BALLARENA

### Hasi da inauterietako aroa

Joan den larunbatean, hilak 16, inauteriak izan zituzten **Anizen**, eta euren lekukoa hartuz, asteburu honetan, **Berroetaren** txanda izanen da. Ohi bezala, gazteak soziedadean elkartuko dira gosaltzeko eta ondotik etxez-etxe ibiliko dira. Ilbeltzaren 30ean, berriz, Gizakunde ospatuko da **Arizkun** eta **Erratzun**. 16:30ean Arizkongo Gamioxarrean mozorroak prestatzen hasiko dira. 18:00etan Arizkundik Erratzura bidea hartuko dute Arizkongo plazan sagardantzak dantzatu ondotik. Erratzura 20:00 aldera ailegatu eta etxez-etxe eskea egindako da. Geldialdietan sagardantzak eta mozorrodantzak egindako dira. Afaldu baino lehen herriko plazan Jantziloren epaiketa egindako dira. 22:00etan afaria izanen da Etxelebertzeko txokoa eta ondotik besta. Ezin aipatu gabe utzi, Egun Ttun-ttun, Oilar Dantza eta Orakunde eguna. **Zigako** herria da Orakunde ospatzen duen lehenbizikoa, otsailak 5. Hemendik abiatuz, ia-ia egunero herriren batek berea ospatuko du.



ARGAZKIA: ARANTXA GAMIO

### Nafarroan trafiko istripuan lehen hildakoa Arizkun

Bazterrak zuri-zuri utzi ditu aurtengo lehen elurteak eta itxuraz ikusteko polita izan arren, zenbait arazo ere izan dira. Herri ttikienetara ez zen ailegatu elurra kentzeko makinarik eta Berroetan, erraterako, herritarrek traktoreekin garbitu behar izan zituzten bideak –argazkia–. Baina are ezbehar larriagoa gertatu zen Arizkundik Erratzura bidean, Lamierritako bidegurutzeko eta Ikatzatea tartean, hilaren 9tik 10erako arratsean. Autoa errepidetik atera eta hil egin zen Agustin Arruti, 43 urteko arizkundarra. Berarekin zihoan Francisco Lakar Iruñerat eraman zuten zauritua.

**Inaki Alzueta margoak**

Motus dekoratibak eta indurak • Dekorazio: etxeak, irakurketa, Faltak • Berriztatzeak  
Luhak eta berriztatzeak • Pintak  
Herri eta eguzki-energiaren garbaitzeak

Tel: 609 802 417 • Iru-ttapi etxea - Lanaber Auzoa • 31711 UFGAZUBI  
giburas.alzueta@yaho.es

LEKAROZ → AZPIEGITURA BERRIAK

# Enpresa campus bat egin nahi du Gobernuak Lekarozko eremu berrian

Hizkuntzak ikasteko zentroa, enpresa parkea eta harrera eremua egin nahi ditu

## TTIPI-TTAPA

Lekarozko kolegioaren ingururako proiektu berritzailea aurkeztu du Nafarroako Gobernuak: enpresa campus bat jarri nahi du kultur, hezkuntza eta ekonomi ekimenetarako. Hala, hizkuntza ikasteko murgiltze zentro bat, enpresa parke bat eta harrera eremu bat eraikitzea da asmoa.

Proiektua urtarrilaren 8an aurkeztu zuen Alvaro Miranda Ekonomia eta Ogasun kontseilariak, Segimendu Batzordearekin Lekarozen egindako bileran. Proposamena ideien lehiaketan irabazi duen ASOARQ arkitekto elkartearena da. Honen arabera, 120.868 m<sup>2</sup>ko eremu bat berriz urba-

nizatuko litzateke eta eremu horretan 34.000 m<sup>2</sup> eraiki. Espazio berri horretan enpresa campus bat jarriko lukete, berdegune «aunitz eta dentsitate guttikoa». Oinezkoentzako eta txirrindularientzako ibilbideak ere iragarri dituzte.

## HIRU JARDUERA

Hiru jarduera planteatu ditu Gobernuak: eliza ingurua berriz eraikitzea harrera gune gisa (11.695 m<sup>2</sup>), baratz zaharrak enpresa parke bihurtzea (49.691 m<sup>2</sup>) eta ikulu zaharren ingurua berriz urbanizatzea, hizkuntza ikasteko murgiltze zentro bat jartzeko (59.482<sup>2</sup>).

Elizaren inguruan, alde batetik, kapera zaharberritu nahi dute, erabilera anitzeko espazio batean bihurtzeko; eta bertetik, eraikin horren ondoan, ekipamendu bat paratu nahi dute. Horrez gain, mintegi bat eraiki nahi da, egoitza administratiboa, ekonomia ekimen berrien mintegia eta zerbitzu osagarrietarako.



ARGAZKIA: WWW.NAVARRA.ES

Itxura hau hartuko luke enpresa campusa eginda.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Eguberrietako erakusleihorik ederrena Burdain bitxi-dendarena

Elizondoko Burdain bitxi-dendak irabazi du Bertan Merkataria, Zerbitzu eta Ostalaritza elkartearen Eguberri hauetako erakusleio lehiaketa. Bigarren postuan Mena argazki-denda gelditu zen, eta hirugarren saria Beatriz lurrin-denda eta Esarte harategiaren artean banatu zen. Sariak abenduaren 30ean banatu ziren eta epaimahaia M<sup>a</sup> Karmen Iribarren udal zinegotziak, Nafarroako Merkatarien Elkarte Mikel Benet eta Fernando Gorostidi margolari baztandarrak osatu zuten. Burdainen «tokia aprobetxatzeko modua eta bereizmen fina» nabarmendu zuten, Menaren «argitze onagatik sortu diren toki berriak», Beatrizen «antolaketa klasiko eta elegantea» eta Esarteren «etxeko produktuak erabiliz lortu den originaltasuna eta eskaparate alai». Sari gisa, Xorroxin Irratian 20, 15, eta 10 aldiz iragarriak izanen dira.

Eraikin berriekekin ikastetxe zaharrenean arkitektura estiloa ere birmoldatuko lukete.

Enpresa parkearen eremuan zume bat egin nahi dute erdian, eliza ingurutik hasita.

## Migel Alberro apaiza hil da

Urtea akitzeaz zegoela zahar-etxean hil zen Migel Alberro apaiza. Bihotz oneko gizona, apaia, umila eta euskalza-

lea, isil-isilik lan handia egin zuen eta beti behartu eta jende arruntengandik hurbil egon zen.

37 urtez Elizondoko apaiza izan zen eta hondarreko 14 urtez zahar-etxeko kapellana.

**BURKAITZEA**  
- ostatu  
- erretegia  
Zugarramurtiko bidea, 3 km  
948 599 280 - URDAZUBI

  
**Kulturkari**  
diseinu grafiko eta komunikazio

Logotipoen diseinua  
Tarjeten diseinua  
Triptikoak, folietoak, karpelak,  
gutunazalak, fakturak...  
Kartelak, egutegiak,  
Inuiti korporatiboa

eskatu aurrekontua  
konpromisorik gabe!

Andutzeta, 12 - 31760 Etxalar - Tel. 948 635 458 kulturkari@ttipi.net

# SENPERE

AZPIEGITURA → ABIADA HAUNDIKO TREINBIDEA LAPURDIN

## Abiada haundiko trenbide berria Senpereko oihanetik pasako da

Hendaiako manifestaziora joateko deitu du auzapezak

**Franck DOLOSOR**

Nahiz eta hiru egun lehenago Interneten ikus zitekeen jadanik, urtarrilaren 11an jakin da ofizialki abiada haundiko trenbide berria nuntsu pasako den, bertzeak bertze, Senpere iparraldean. Segimen batzordeak kilometra bateko zabalera duen kolidorea marraztu du eta hori proposatuko dio Frantziako garraio ministroari. 2010 hondarrean, 500 metrako kolidorea marraztuko da. Ibilbide hori ez da lbarrun eta Helbarrun auzoen artean, eta Larrun mendiaren azpian pasako, bigarren bidea, mendebaldean dena atxikia izan baita. Christine Bessonart auzapezak dio kalte gutien sortuko duen bidea dela lan zelairik edo ur edangarria hartzeko tokirik ez baita hunkitua izanen.

Dena den, mobilizaturik segituko du eta urtarrilaren 23an, proiektuaren kontra Hendaiaren eginen den manifestaldian parte hartzera deitu du andere auzapezak. TTIPI TTAPARI erran diot, burdin bide berria ez da beharrezkoa oraingo

linea 2050ean baizik ez baita saturatua izanen. Hendaiako manifestaldirat joateko autobusak abiatuko dira herritik.

### Agur Pierre laguna

Bihotzeko ximiko haundia izan dugu berriki Pierre Halsouet herritarren heriotzaren berri izan dutelarik. 90 urte bete behar zituen urte hasitapenean pausatu da Zuraideko xahar-etxean.

Donamartiko semea ezagutzen Ganix bertsulariaren semea baitzen. Bere aita zena bezala oihan zaina eta umore oneko gizon alegera zen. Azken egunak arte, aski pixkor ibili da. Gan den udan, Senpereko pilotaren etxearen estrenan parte hartu zuen eta atsegin haundiz ikusi zituen bere sortetxearen argazkiak eta bere aitak pilotatzen ikusi zituen gutuna.

### Kultura eta kirola

Herriko Etxeak zorbait proiektu dauzka kirola eta kultura sustatzeko. 500 lagun bil ditzakeen ikusgarri gela anitzeraiki nahi da eta eraikin hau marraztuko duen arkitektoa hautatuko da aurten. Bertzalde, aintziran ezker pareta bat altxatuko da eta xirrixta berri. 12 266 euro baliatuko dituzte xirrixta osotik berritzeko.



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

### Lagunen arteko biltzarrak

Ohiturari jarraikiz, berriki zorbait sorte elgarretaratze egin dira. 2009an, 70, 55 eta 45 urte bete dituztenek momentu goxoak pasatu dituzte elgarrekin.

## FLASH

### Aldaketak ile apaindegian

Aixturak eskuz aldatu dira Philomènen ile apaindegian. 36 urtez senperarrak orraztu ondoren, Philomènek lekuko utzi dio Fabienne-ri, azken urteetan bere langilea izan denari. Philomène Mundutegian hasi zen lanean eta inguruetan pixka bat aritu ondoren, bere ile apaindegia ideki zuen Elizondoan. Aixturak utzirik ez du lanik eskas izanen, halere, berriki amaxi izan baita.

### Bi etxegune berri gazteentzat

Herriko Etxeak bi etxegune berri sortuko ditu ondoko hilabeteetan gazteentzat. Karrika Nagusia ondoan, Karrikari So Bi altxatuko dute eta aintzira gainean, Oihamunt. 50.000 eta 57.000 euro artean baliatuko izanen dira Oihamunteko 11 lur zatiek, hau da, merkaturaino ainitz gutiago. Espulazioa gelditzeko erosleek ezin izanen dituzte lurra saldu karioago 20 urtez. Ortzara etxeguneko lur bateko erosleek nahi izan zuten lurra karioago saldu baina justiziak arrazoin eman dio Herriko Etxeari, hogoi urtez ezin da holakorik egin aberasteko herriari merke erostea zaion lur batekin. Senpere eta inguruetako hautetsiak pozik dira justiziaren erabakiaz lanean segitzen ahaliko baitute lur merkeak salduz gazteeri.

HERRIKO ETXEN  
EDXNTEGIA  
CAFÉ DE LA MAIRIE  
Tl: 0559542519  
Mozan eta Warrigue  
SARA

Dantzarineatik  
2 km-tara

**MONTXO** OSTATUA  
TABAKO-DENDA  
ANZAN-BORDA · VRDZVBI  
Egunero irekia 10:30etik 02:30era



KIROLA → REALA ETA GIRONAREN ARTEKO LEHIA IKUSTERA

# Atxuri Urdin peñak ateraldi bat antolatu du otsailerako Gironara

Izena emateko azken eguna urtarrilaren 31 da

## Xan HARRIAGUE

Atxuri Urdin Reala futbol taldeko peñak ateraldi bat antolatu du heldu den otsailaren 20an eta 21 ean Gironara (Katalunia) bi taldeen arteko partida ikustera joateko. Autobusa, partidaren sartzea eta hotela-erentzat 100 bat euro kostako dela aurreikusita da. Behar izanez gero, autobusa Beratik abiatuko da eta Saran barna Kataluniako bidaia egingen. Deialdia irekia da eta interesatuak diren guztiak izena eman behar dute hilaren 31 baino lehen.

## IZEN-EMATEA

Izena ematearekin batera, 60 euroko aurre-erapena eskatzen da. Txekueak, izen-deiturak, eta kontakturen bat (helbide elektronikoa edo telefonoa) honako helbide honetara eman be-

har dira: Peña Plata-Atxuri Urdin, Pleka Trinketea 64310 Sara, edo

Patrick Etxegarai Sastirekin harremanetan sartu zenbaki honen bi-

dez (0033) 662911725. Zehaztasun gehiago nahi izanez gero, galderak

egin daitezke [penapla-ta@euskalerrria.org](mailto:penapla-ta@euskalerrria.org) helbidean edo peñaren web orria bisitatuz, [www.atxuriurdin.com](http://www.atxuriurdin.com). Tokiak mugatuak direnez, izena lehenik ematen dutenek izanen dute lehentasuna.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Presoen eskubideen aldeko elkarretaratzea

50 bat lagun bildu ziren abenduaren 31n euskal presoen eskubideak errespetatuak izan daitezzen galdetzeko. Presoak haien etxeetatik hurbiltzea, eritasun grabeeak, alegia, minbizia edo sendaezinak diren eritasunak dituztenak libratzea eta eman zitzaizen kartzela zigorra bete dutenak libratzea galdetu zuten. Besteak beste, aukera baliatu zuten presoen argazkien aurkako ehiza salatze-ko. Joan den urteaz geroztik preso baten argazkia erakustea delitu bat da Hegoaldean. «Terrorismoa goraipatzea» leporatzen dute Espainiako agintek eta hori egiten dutenek bi urteko kartzela zigorra arriskatzeko dute soilik lagun edo familiar baten argazkia erakusteko. Gisa berean salatu zuten haien bisitatzera joaten direnei azken hilabete hauetan inposatzen zaien ukimenezko miaketa. Burdina aurkitzeko arkupekin pasatzeaz gain, eskuz miatuak izatea behartzen dituzte eta kasu batzuetan jendea biluzteraino arribatu dira. Elkarretaratzean nabarmentzekoa izan zen herriko kontseiluaren presentzia bospasei ordezkari parte hartu baitzuten giza eskubideen defentsan.

## Errugbiko mus txapelketa

Urtero bezala, mus txapelketa antolatu du Sarako Izarra errugbi taldeak. Urtarrilaren 30ean iraganen da 14:00etatik aitzinera Omordian. Parte hartu nahi dutenek izena eman behar dute 24a baino lehen (0033) 624208978 telefonora deituz. Txapelketan parte hartzeko bost euro ordaindu beharko dira eta afarirako beste 20 euro. Afaria denei irekia da.

## Jean Pouyeten bloga

Urte hasieraz geroztik gure herriari buruzko berriak ikus daitezke Jean Pouyeten blogean: <http://sare.blogs.sudouest.com>.

ANTXITONEA  
Trinketea

Jatetxea - Ostatua  
Hotela - Trinketea

Menu Bereziak

Braulio Inaite karkika  
ELIZONDO

Tel: 948 581 807 - 948 581 853

Alai  
supermerkatua

MERKE  
ALDIA

%50  
eraino

Santiago, 47 - Elizondo - tel. 948 452 457

## ZUGARRAMURDI

ILBELTZA → OSTATUAK, JATETXEAK ETA MUSEOA ITXITA

# Mugimendu haundirik gabe joan dira urteko lehenbiziko asteak

Sorginen Museoa gan den asteondarrera bitarte itxita egon da

### Koro eta Margari

Zentzu haundiarekin *ilbeltza* deitzen zaio hila-bete huni, nonbait iluna eta tristea delako. Eta franko ilun eta tristea dugu egun hauetan herria, ostatu eta jate-txe aunitz itxita baitaude. Museoa eta leizea ere itxita egon dira, ilbeltzaren 1etik 15era; asteondarrean irekitzekoak ziren, baina elurteazela-eta 9-10eko asteondarrean ez ziren ireki.

### Doinu bereziak Graxianan

Graxiana aterpea hila-bete hauetan eskaintzen ari den musika emanaldien artean, musika berezi bat entzuteko aukera izanen dugu hilaren 29an. Talde kataluniar bat ariko baita, El Belda i el conjunt Badabadoc izenekoa. Talde horretan trikitixa kataluniarak nola aditzen diren ezagutu ahal izanen dugu. Afal ondotik izanen da.

### Biztanlerian beheiti

Urtea finitu ondotik hainbat balantze egiten direnez, hona hemendatu adierazgarri eta kezkarri bat: gan den urtean hamar lagun hil ziren Zugarramurdin eta batto bakarrik sortu zen.



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

### Urteko azken igandea Aiako Harrietan

Atxuria Mendi Taldeak Aiako Harrietara egindako ibilaldiakin despeditu zuen 2009a, urteko azkeneko igandean, hain zuzen. Hori ospatzeko alde batetik, eta hildako mendizaleen oroimenez bertetik, txanpaina eta pastak eraman zituzten mendi puntarat.



**Xanti**  
**ITURBIDE ALMANDOZ**  
2004ko otsailaren 23an  
VI. URTEURRENA



**Mikel**  
**ITURBIDE MATXIKOTE**  
2007ko ilbeltzaren 24an  
III. URTEURRENA

*Hainbertze urtez bizitakoa  
dena eman ez elkarri,  
gerora ere izan dadila  
gure arteko lokarri.*

**XANTI ETA MIKELEN FAMILIA**  
Igantzi, 2010eko ilbeltza



**Dionisia**  
**PETRIRENA ETXEBESTE**  
Arantzan hil zen 2009ko abenduaren 15ean,  
89 urte zituela.

*Urak dakarrena, urak darama  
zuk emandakoa, amatxi,  
gurekin geldituko da.  
Mila esker,  
izan zaren bezalakoa izateagatik.*

**FAMILIA**

## SORTZEAK

**Joanes Jauregi Bajo**, Elizondokoa, abenduaren 18an.  
**Naia Endara Rodriguez**, Berakoa, azaroaren 28an.  
**Mikel Castro De Miguel**, Urrietakoa, urtarrilaren 5ean.  
**Loiara Sansinena Aragon**, Urdazubikoa, abenduaren 19an.  
**Paula Ruiz Chinchilla**, Doneztebekoa, abenduaren 26an.  
**Mikel Villamea Saralegi**, Doneztebekoa, urtarrilaren 3an.  
**Lorea Saldias Makazaga**, Goizuetakoa, abenduaren 31n.  
**Mikel Ezkurra Ezkurra**, Iturengoa, urtarrilaren 5ean.  
**Nahia Bertiz Babaze**, Sunbillakoa, abenduaren 14an.  
**Oihane Lazkano Altzuri**, Sunbillakoa, abenduaren 22an.  
**Lexuri Perez Alejos**, Berakoa, urtarrilaren 8an.  
**Irati Aznar Pizarro**, Legasakoa, urtarrilaren 7an.  
**Julie Dillenburg**, Sarakoa, abenduaren 6an.  
**Tao Zangpo Morros**, Sarakoa, abenduaren 20an.  
**Mattin Jauregi**, Sarakoa, abenduaren 22an.  
**Oihana Larraburu**, Sarakoa, abenduaren 24an.  
**Jone Urbistondo Agerre**, Sarakoa, abenduaren 30ean.  
**Aratz Gurrutxaga Olazabal**, Aresokoa, azaroaren 13an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

## EZKONTZAK

**Esteban Andueza Lekuberría** eta **M<sup>a</sup> Soledad Diez Dominguez**, Berakoa eta Lesakakoa, abenduaren 26an Lesakan.  
**Arnaud Delasteyrie Dusailant** eta **Katia Matvie Galarreta**, abenduaren 19an Saran.  
**Andre Elizagarai** eta **Catherine De luze Agorrekaetxea**, abenduaren 31n Saran.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

## HERIOTZAK

**Anastasio Amunarriz**, Aresokoa, azaroaren 18an, 88 urte.  
**Rufino Loiarde Mitxelena**, Goizuetakoa, abenduaren 27an, 84 urte.  
**Tomasa Arraztoa Etxenike**, Iruritikoa, abenduaren 23an, 89 urte.  
**Jose Baleztena Albistur**, Beintza-Labaiengoa, abenduaren 24an, 88 urte.  
**M<sup>a</sup> Paz Arburua Irisarri**, Etxalarkoa, abenduaren 14an, 90 urte.  
**Pello Garmendia Galarregi**, Elizondokoa, abenduaren 25ean, 52 urte.  
**Felix Urtxulutegi Galarregi**, Doneztebekoa, abenduaren 25ean, 76 urte.  
**Jabier Urtasun Santesteban**, Iruritikoa, abenduaren 26an, 79 urte.  
**Jose Luis Bidegain Dorremotz**, Elizondokoa, abenduaren 26an, 58 urte.  
**Migel Alberro Deskarga**, Elizondokoa, abenduaren 26an, 84 urte.  
**Jesusa Elizagoien Lizasoian**, Gartzaingoa, abenduaren 26an, 83 urte.  
**Fructuoso Gartzia Galañena**, Oronoz-Mugairikoa, abenduaren 27an, 88 urte.  
**Kontxita Espartza Biela**, Lesakakoa, abenduaren 27an, 92 urte.  
**Alejandro Otxandorena Urrotz**, Beintza-Labaiengoa, abenduaren 28an, 85 urte.  
**Antonio Etxeberria Galarregi**, Azpilkueta, abenduaren 29an, 80 urte.  
**Maria Lastiri Manterola**, Sunbillakoa, abenduaren 31n, 85 urte.  
**Maria Guadalupe Ibarra Mariezkurrena**, Elgorriagakoa, urtarrilaren 2an, 82 urte.  
**Gabriela Argain Aroztegi**, Almandozkoa, abenduaren 3an, 73 urte.  
**Blas Gortari Mendiburu**, Elizondokoa, urtarrilaren 4an, 79 urte.  
**Sor Maria Pilar Villaos Cantero**, Elizondokoa, urtarrilaren 4an, 82 urte.  
**Martina Mindegia Monako**, Beintza-Labaiengoa, urtarrilaren 4an, 88 urte.  
**Jose Antonio Goia Lasaga**, Berakoa, urtarrilaren 4an, 66 urte.  
**Jose Antonio Iriarte Ibarra**, Sunbillakoa, urtarrilaren 7an, 65 urte.  
**Pepita Arrieta Petrikorena**, Doneztebekoa, urtarrilaren 9an, 86 urte.  
**Jose Agustin Arruti Perez**, Arizkungoa, urtarrilaren 9an, 43 urte.  
**M<sup>a</sup> Paz Salaburu Arrijuria**, Elizondokoa, urtarrilaren 9an, 51 urte.  
**Ignacio Oiaregi Mendikoa**, Elizondokoa, urtarrilaren 10ean, 74 urte.  
**Jesus Antzizar Arrupea**, Doneztebekoa, urtarrilaren 10ean, 74 urte.  
**Ramona Irigoien Altzugarai**, Igantzikoa, urtarrilaren 11n, 97 urte.  
**Jose Luis Elizalde Ilarregi**, Gaztelukoa, urtarrilaren 10ean, 60 urte.  
**Lorenzo Iparragirre Almandoz**, Arantzakoa, urtarrilaren 13an, 85 urte.



**Xabier ZUBIETA ERKIZIA**  
**Luis Mari PIKABEA ZUBIETA**  
**Xabier SARALEGI ALTZATE**



**III. URTAMUGA**  
**Arantza, Bera, Lesaka**

*Gailurra edo magala, zein ikusmira zabala maitatzen segiko zaituztegu, zuek mendia bezala.*

**ETXEKOAK.**

*Aizkora apustuak eta txapelketak, 1949-2009* liburu mardul bezain interesgarria argitaratu du Antton Espelosin sunbildarrak. Hirurogei urte horietan aizkora munduan

izan diren apustuak ez ezik, txapelketak eta Euskal Herriko hamabi txapeldunen biografia laburra ere bildu du Espelosinek. Orain hiru urte *Ramon Latasa, basoko aiz-*

*kolaria* liburuaren irabaziak Sunbillako aizkolariaren eskultura egiteko erabili bazituen, oraingokoarekin Mindegiari eskaini nahi lioke oroigarria Zubietan.

Antton ESPELOSIN | Sunbillako herri kirolzalea

# «Ikusminagatik, apusturik handiena Latasa eta Luxiaren artekoa izan da»

Aitor AROTZENA | SUNBILLA

Aizkorazaleak badu nahitaez kontsultatu beharreko liburu mardula: Antton Espelosinek 700 orrialdetan bildu du azken 60 urtetan han-hemenka jokatu diren 788 txapelketa eta apustuak argazkiak, datuak, enbor bakoitza mozteko erabilitako denborak... Bi urteko lan izugarria dauka gibeletik Espelosinen liburuak. Donostiako Koldo Mitxelenan informazio aunitz bildu eta inprimatu zuen, laburpenak egin, ordenagailura pasatu, Diario de Navarra egunkariari argazkiak erosi, Luis Mari Bengoak eta hainbat aizkolarik borondatez utzitakoak... «Zailena –dio Espelosinek– 1980 urte bitarteko apustuen informazioa biltzea izan da, inguru horretan Federazioak finkatu ziren eta errazagoa da datuak lortzea». Jendeari galdetuz osatu du informazio hori, Doneztebeko Martin Belarrari, Leitzako Miguel Zabaleitari... apustu aunitz Donezteben eta Lekunberri jokatu baitziren.

Rafael Agirre Francok duela 30 urte argitaratu zuen Gipuzkoako aizkora txapelketa eta apustuei buruzko liburua eta bertzerik ez zela ikusiz, horretan hasi zen Espelosin. «Lehenbiziko txapelketa ofiziala 1950ean Martin Gartziaarena leitzarrak irabazi zuen eta



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Antton Espelosinek azken 60 urtetako aizkora txapelketa eta apustuei buruz idatzi duen liburu ederra erakusten.

urte hori hartu dut abiapuntutzat». Noizbait Euskal Herriko txapeldun suertatu diren 12 aizkolarien biografia labur bat ere egin du. Txapelketei dagokienez, Euskadiko lehen eta bigarren mailakoak eta gazte mailakoak hartu ditu kontuan eta herrialdeka, lehen eta bigarren mailakoak, baina nahiz binaka.

**APOSTURIK HANDIENA**  
«Luxiak eta Latasak Donostiako zezen-plazan 1959ko apirilaren 26an jokaturakoa. 225 pezeta balio zuen sarrerak (oraingo 200 euro inguru) eta halere kasik 18.000 lagun sartu ziren eta bertze aunitz kanpoan gelditu behar, ezin sartuz»

60 urteko laburpen hori eginda, bere ustez historiako aizkolaririk handiena zein izan den galdegin diogu Espelosini: «Zaila da bereiztea, baina Mindegia izan da txapel kopuruaren aldeetik gehien irabazi dituen eta 60 urterekin oraindik hor dabil goi-mailan; Latasak ere dohain bereziak zituen, baina gau-

za batengatik edo bertzearengatik, ez zuen aprobetxatzen jakin».

Apustuei dagokienez, apustu handi eta berezi aunitz jokatu direla jakitun, «Luxiak eta Latasak Donostiako zezen-plazan 1959ko apirilaren 26an jokaturakoa» nabarmendu du egileak. «Orain dela 50 urte 225 pezeta balio zuen sarrerak, (oraingo 200 euro edo) eta halere kasik 18.000 lagun sartu ziren eta bertze aunitz kanpoan gelditu, ezin sartuz». Donato Larretxeak eta Mikel Mindegiak joan den urteko azaroan Tolosan jokaturakoa ere azpimarratu du, «batek 50 urterekin eta bertzeak 60 urterekin egindako lana handia izan da. Pena, eguraldiarengatik jende gutti bildu zela». Urteetan apustu gutti egin baldin badira ere, berriz ere indartzen ari dela uste du Espelosinek.

Liburua 30 eurotan salgai dago eta irabaziekin Zubietan Mindegia berari eskultura bat egiteko asmoa du. Liburua euskaraz egin du, «euskal kirola delako eta euskaraz egin behar zelako, barrenetik hori ateratzen zitzaidan. Jendeak erran dit erdaraz eginez gero, gehiago salduko litzatekeela, baina erosten duenak egin dezala ahalegintxo bat euskaraz irakurtzeko, erraz irakurtzen baita».

PILOTA → BAZTANGO XXVIII. TXAPELKETA

# Baztango pilota txapelketaren finalak abenduaren 20an jokatu ziren Erratzun

Binaka jokatu ziren lau partida eta gazte mailakoa buruz buru lau terdiaren barrenean



UTZITAKO ARGAZKIA

TTIPI-TTAPA | BAZTAN

Abenduaren 20an jokatu ziren Erratzun Baztango XXVIII. pilota txapelketaren finalak. Bortz partida jokatu ziren.

**Umeen mailan** ikusi zen partidarik berdindua Lekarozko bi bikoteren artean. Azkenean Jon Larretxeak eta Unai Elizondok 18 eta 17 irabazizieten Oier eta Aimar Ariztegi.

Mikel Goñi eta Iñaki Otxandorena izan ziren sari banaketan.

**Kimuen mailan**, Arraiozko Eki Etxandik eta Almandozko Peio Oskozek 18 eta 7 irabazizieten Elizondoko Ander Zelaieta eta Lekarozko Manex Meokiri.

**Haurren mailan**, Oronozko Enaitz Antso eta Elizondoko Sergio Oskozek 18 eta 11 irabazizieten Sunbillako Iker eta Andoni Espelosini.

**Kadeteen mailan**, Iturengo Ugaitz Elizaldek eta Igantziko Mikel Beginok 18 eta 12 irabazizieten Iturengo Arkaitz Untxalo eta Elizondoko Dario Trantxeri.

**Gazte mailan**, azkenik,

lau terdiaren barrenean buruz buru jokaturako partidari, Amairuko Antton Jauregik 18 eta 10 irabazizien Oronoz-Mugairiko Joseba Arizmendiri.

ATLETISMOA → DONEZTEBEKO IV. SAN SILVESTRE

# 150 korrikalarien artean Iñigo Arregi eta Teresa Jadraque nagusitu dira

Inoiz baino parte-hartze handiagoa Errekaren proban

dizale inguru bildu ziren ohitura bete eta Mendaur mendira joateko.

Arratsaldean Doneztebeko San Silvestrea izan zuten. Proba gero eta indartsuagoa dagoela argi dago, izan ere inoiz baino korrikalari gehiago izan ziren laister egiten. 150 korrikalari denetara: 50 haurretan eta 100 helduetan.



ARGAZKIA: ERREKA K.E.

Mutilen eta nesken probetako podiumak.

Gainera jende aunitz bildu zen zirkuitoan korrikalariak animatzeko. Proba akitzerakoan sariak eman eta parte hartzaile guztien artean komertzioek emandako 17 opari zozketatu ziren.

Mutiletan Iñigo Arregi doneztebar gazteak etorkizun haundiko korrikalaria dela argi utzi zuen, eta proba irabaztea lortu zuen. Nesketan berri, Teresa Jadraque izan zen garaile.

SAILKAPENAK	
1. Iñigo Arregi	11:22
2. Patxi Irazoki	11:32
3. Xanti San Miguel	11:36
4. Iñigo Lasaga	11:50
5. Fermin Oteiza	11:56
1. Teresa Jadraque	13:42
2. Ana Zelaieta	13:45
3. Lorea Agirre	15:14
4. Topi Jadraque	16:12
5. Paula Jadraque	16:13

TTIPI-TTAPA | DONEZTEBE

Doneztebeko Erreka elkarteak hitzordu bikoitza zuen Urtezahar egunean. Goizean 70 men-

## urtarrilak 21-otsailak 4

Informazioa bidaltzeko: [info@titi.net](mailto:info@titi.net) edo 948 63 54 58

## Erakusketak



IRURITA | 2009.02.14 arte

**Pilotaria eta bere ingurua erakusketa**

*Pelotari y su entorno* izeneko argazki erakusketa zintzilikatu du Xabier Landa argazkilariak Olari jatetxean. Otsailaren 14ra arte ikusgai.

## Inauteriak



SUNBILLA | 2009.01.31

**Eskualdeko karrozarik ikusgarrienak**

Ez da Sunbillako inauterietako ekitaldi bakarra, baina bai izena ematen diona. Ilbeltzeko azken igandean karrozen desfile ikusgarria izanen da.

## Mendia



BERA | 2009.01.24

**Goizuetara ateraldia antolatu du Agerra Mendi Taldeak**

Beratik edo Agiñatik oinez abiatuta edo Goizuetaraino autobusez joateko aukera ere eskaintzen du Agerra Mendi Taldeak urteroko ibilaldian.

taldekoek. Xehetasunak 34. orrian.

## BEINTZA-LABAIEN

**Otorduz otordu**

**Ilbeltzaren 22 eta 23an** ospatuko dituzte iñoteak, ortziral arratsean Itur-Ondo elkartean egingen den aforiarekin. Larunbatean gosaria, puxka-biltzea, bazkaria eta aforia izanen dute. Xehetasunak 19. orrian.

## DONAMARIA

**Mozorro festa**

**Urtarrilaren 29tik 31ra** inauteriak ospatuko dituzte. Xehetasunak 17. orrian.

## IGANTZI

**Etkez-etxe eskea**

**Otsailaren 5 eta 6an** inauteriak.

## ITUREN

**Joaldunak, mozorroak, puxka-biltzea...**

**Urtarrilaren 28tik otsailaren 3ra** inauteriak. Xehetasunak erdiko gehigarrian.

## LEITZA

**Atsoguretuena pesta**

**Ilbeltzaren 23tik 26ra** inauteriak ospatuko dira (ikus 509. alea).

## SUNBILLA

**Karrozen desfilea baino gehiago**

**Urtarrilaren 28tik 31ra** inauteriak. Igan-dean karrozen desfile ikusgarria izanen da. Xehetasunak erdiko gehigarrian.

## ZUBIETA

**Joaldunak, mozorroak, puxka-biltzea...**

**Urtarrilaren 28tik otsailaren 3ra** inauteriak ospatuko dira. Xehetasunak erdiko gehigarrian.

## Erakusketak

ELIZONDO

**Ikusi Makusi Arizkunenean**

**Urtarrilaren 18tik 29ra** ikusgai dago Arizkunenean Bakera-ko Lankidetzak Batzarrak Gobernu Kanpoko Erakundeak presatutako *Ikusi-makusi* proiektua, nagusiki 10-16 urte bitarteko neska-mutikoei bideratua.

IRURITA

**Xabier Landaren argazkiak**

**Otsailaren 14ra** bitartean Xabier Landa argazkilariaren *Pilotaria eta bere ingurua* argazki erakusketa ikusgai izanen da Olari jatetxean.

LEGASA

**Herriko argazki zaharren erakusketa**

**Otsailean** herriko argazki zaharrekin erakusketa egingen da. Urtarrilaren 25ean etxez etxe pasako dira biltzera edo [legasa@hotmail.com](mailto:legasa@hotmail.com) helbidera bidaltzen ahal dira.

## Kontzertuak

LEITZA

**Inauterietan twist doinuak dantzatzeko**

**Ilbeltzaren 26an** The Sparteens talde lapurtarrak kontzertua eskainiko du Atekabeltzan, dantzatzeko bixi-bixi, twist doinuekara ekarritako euskal kantu ezagunak.

ZUGARRAMURDI

**Kataluniako doinuak Graxiana aterpean**

**Ilbeltzaren 29an** El

Belda i el Conjunt Badabadoc Kataluniako taldea ariko da Graxiana aterpean, afal ondolik.

## Hitzaldiak

GOIZUETA

**Adimen emozionala**

**Urtarrilaren 25 eta otsailaren 1ean** adimen emozionalari buruzko solasaldiak eskainiko ditu Gabi Goiak eskolan 15:00etatik 17:00etara. Guraso Eskolak antolatua.

## Inauteriak

ARANO

**Suro auzoan hasita**

**Otsailaren 6an** inauteriak. Xehetasunak 31. orrialdean.

ARANTZA

**Mozorro zurien besta**

**Otsailaren 4, 5 eta 6an** inauteriak. Xehetasunak 14. orrian.

ARIZKUN-ERRATZU

**Gizakunde Eguna**

**Ilbeltzaren 30ean** ospatuko dute Jo ala Jo

## PROPOSAMENA

AURTIZ-ITUREN-ZUBIETA

**Joaldunak harat-honatean ibiliko dira**

Inauteriak urtarrilaren 28an hasiko badituzte ere, Euskal Herri osoan famatuak diren joaldunen harat-honatak otsailaren 1ean eta 2an izanen dira. Astelehenean Iturengo joaldunek harrera egingen die Aurtiz eta Zubieta-koei eta asteartean, zubiatarrek Aurtiz eta Iturengo. Euren inguruan karrozak eta mozorroak saltsakeriatan ibiliko dira.



## Bertsoak

ERRATZU

**Bertso afaria**

**Ilbeltzaren 23an**

Amets Arzallus, Xabier Silveira, Unai Iturriaga eta Jon Barberena ariko dira Erratzuko elkartearen, 21:00etan. Gai-jartzailea: Fernando Anbustegi.

SARA

**Bertso afaria**

**Urtarrilaren 23an**

Uxue Alberdi, Iker Zubeldia, Beñat Gaztelumendi eta Aitor Mendiluze ariko dira Lur Berrin, ikastolak, Gaztetxeak eta Herriko Etxeak antolatutako bertso-afarian. Txartelak Herriko Etxeko edantegian salgai.

SUNBILLA

**Nafarroako txapelketaren bigarren saioa**

**Urtarrilaren 24an**

Ulibeltzak elkartean 17:30ean, Nafarroako Bertsolari Txapelketako bigarren saioa egingen da. Xabier Legarreta, Aritz Saragueta, Iñaki Aleman, Iñigo Ibarra, Ekaitz Astiz eta Egoitz Gorosterrazu ariko dira.

## Mendi ateraldiak

BERA

**Agerra Mendi Taldea Goizuetara**


**Urtarrilaren 24ean**

eginen da. Orduak: Bera-Goizueta: 7etan irteera Agerratik. Agiña-Goizueta: autobusa 8:15ean Agerratik. Oinez joan nahi ez edo ezin dutenentzat autobusa 11etan Agerran.

Gertaera guztiak ikusteko, begiratu: [www.ttipi.net](http://www.ttipi.net) (agenda)

## ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

### Liburua



Basamortua

J.M.G. LE CLÉZIO

Itzul. Luis Berrizbeitia

Elkar, 2009

**X**X. mende hasieran frantsesek fusilaren puntan obratutako Sahararen konkista odoltsua hondo gisa harturik marrazten da, pintzelkada finez eta begirada sarkorrez, Lalla izeneko neska berberearen istorioa. Basamortuko gerlari urdinen leinukoa, Ipar Afrikako hiri bateko bazter auzo batean bizi da neskatoa, dunen artean jolasean Hartani artzain gormutuarekin, edo Europako hirien berri entzuz Naman judu arrantzale zaharraren ahotik; etorkin bilakaturik, Marseillara iritsiko da: kalez kale ibiliz, hotel xaxtar bateko garbiketak eginez edo fotografo batentzako modelo bilakaturik, Lallak ez du inoiz galduko bere izaera alaia, ezta bere jatorriaren oroitzapena ere. Norabide bikoitzeko bidaian, kultur arteko talkaren barne toles itsusienak ikusarazten zaizkigu ahoan bilorik gabe. Zibilizazio, garapen eta aurrerakuntza kontzeptuak errotik astintzen dituen istorio gordin bezain poetikoa, J.M.G. Le Clézio 2008ko Nobel Saridunaren eleberri txalotuena.

### Musika



Katuek bezala

THE USKI'S

Baga-Biga, 2009

**T**he Uski's taldea Elantxobe eta Ibarrangelun (Bizkaia) sortu zuten 2003an. Anaiak, lehengusuak eta lagunak diren bartz gaztek eman zioten hasiera. Ibilbide txikia izan zuten bi maketa grabatu zituzten, baina lehen hazia hor utzi zuten. Estiloa finkatu, musikari sena gorpuztu, ideiak sakondu. Emaitzak laster iritsi ziren. The Uski's taldearen lehen diskoa 2005ean karrikaratu zen. Musika alaia, kantu errazak, melodiaz blai egindako abesit dantzagarriak, betiko rock&rolla bluesaren eragin zuzenarekin, hondartzako erritmo gustagarriak zituen *Itxosun zarati* diskak. Handik bi urtera, bigarren lan luzeak (*Barikun*) estreinekoaren ildoak segitu zituen eta Bizkaiko kostaldetik Euskal Herriko plaza askotara ailegatu zen taldearen ospea. Hirugarren lana (*Katuek bezala*) Natxo Libertyk eta Jose Lastrak ekoitzi eta grabatu dute. Ukitez ukitu, The Uski's berri bat azaleratu digute, disko aberats eta bikaina osatuz.

### Internet



Baztango Kirol Taldea eskubaloien berri

[WWW.BAZTANGOKT.ES](http://WWW.BAZTANGOKT.ES)

**B**aztango Kirol Taldea eskubaloi elkarteak webgunea berritu du. 1985ean sortu zen elkarteak, beraz mende laurdena bete du eta momentu hauean nesken eskubaloiko 8 talde aritzen dira klubean. Azken bartz urtetan lehen maila nazionalen ari den taldeko jakingarriez gain, bertze taldeena ere azaltzen dira webgunean (argazkiak, jokalarien izenak, sailkapenak, egutegiak...). Multimedia atalean argakiak eta bideoak ikusten ahal dira, eta bazkide egiteko edo babesleen informazioa ere biltzen da. Zuzendaritza batzordea, klubaren historia eta palmaresa aipatzen dira eta horretan azpimarratzekoa da talde nagusiak 2007-2008 denboraldian bere multzoan lortutako bigarren postuan, Oho-rezko Mailara igotzeko promozioa jokatzeko aukera eman baitzion. Azken berriak biltzen dituen Albisteak atalak eta harremanetan jartzeko Kontaktatuak atalak osatzen dute webgune interesgarria.

## Nire aukera



Angel SALABERRIA  
Goizuetako albintea

## Semearen eta nere pilota partiden arabera antolatzen dugu asteburua

**G**oizuetan herriko alguazila edo pilota eskolako irakasle izateagatik ezagutzen dute Angel, baina zuetako aunitzek telebista bidez ikusi izanen du pilota partidetan, epaile lana betetzen baitu profesional mailako partidarik handienetan ere. Semea pilotaria izaki, harat-honatean eramatea ere suertatzen zaio asteburuetan, «betti frontoian sartuak egoten gaituk!», dio. Gainerakoan, familiarekin bildu eta egotea gustatzen zaio. Pilotazalea ez ezik, futbolzalea ere bada, edo izan zen Angel: «Realeko bazkide izan nintzen Atotxako garaietan; Gijonen lehen liga irabazi zutenean, hantxe nengoen, baina orain ez naiz joaten». Kirola ikusi bai, baina gaur egun praktikatu gutxi-ko egiten duela onartu digu garai batean pilotari afizionatu izan zen goizuetarrak. Kirolaz aparte, kultur arloan irakurtzea ez zaiola soberra gustatzen aipatu digu, «egunkariko kirol orrialdeak bakarrik». Zinemara ere, lehen baino gutxiago joaten da.

**ANZABAL**  
INMOBILIARIA

**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**  
- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

**IPARRALDE eta BIDASOA alderdjetan**  
- Eskaintzagarriak baserriak, bordak eta lurak behar ditugu.

**LESAKA**  
- Baserria salgai, lur eremuarekin.  
- Etxe bat salgai, bere lurarekin.

ELIZONDO  
Tel. 948 580 804  
Faxa. 948 581459  
anzabal@anzabal.com

**ETXEBIZITZAK**  
salgai

**BERA.** Pisia salgai. 3 logela, jantoki osatua eta sukaldea balkoiarekin. 2 logelek ere balkoia dute. Gasa eta berokuntza zentrala. ☎948 631381/697 436845.

**BERA.** 80 m<sup>2</sup>ko pisua salgai. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta trastelekua. Berogailua. Dena berritua. Aparkaleku pribatua. ☎657 715243 / 657 799953.

**ARANTZA.** Etxebizitza bere garajearekin salgai. ☎697 474042.

**ETXALAR.** Lizaietakoa parajea, zaharberritzeko borda salgai. Lur eremuarekin. ☎661 121540.

**ETXEBIZITZAK**  
errentan eman

**LESAKA.** Pisia errentan emateko. 3 logela eta berokuntzarekin. ☎689 170785 (17:00etatik 19:00etara).

**BERA.** Pisia errentan ematen da, Agerra auzoan. Hiru logela, kalefakzioa eta igogailuarekin. ☎659 963960.

**LESAKA.** Apartamentu moblezatua errentan emateko. Gehenez bi lagunendako. Denbora luzerako errentan eman nahi da. ☎675 714360.

**MERKATU TTIKIA**  
**948 63 54 58**  
info@ttiipi.net edo www.ttiipi.net

SAIL HONETAN IRAGARKIA JARTZEKO 8€ ORDAINDU BEHAR DA ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO 10€

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta TELEBISTA eta INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

**LESAKA.** Bittiria karrikan pisua errentan emateko, Aliproxen gainean, 3. solairuan. Dena moblezatua eta gela guztiak kanpoaldera. ☎686 378154.

**ETXEBIZITZAK**  
errentan hartu

**ARANTZA.** Baserria errentan hartuko nuke. Lur pixka batekin. ☎672 185168 (arratsaldez).

**ETXEBIZITZAK**  
erosi

**BORTZIRIAK edo MALLERREKA** aldean borda erosiko nuke, argia eta urarekin. ☎659 019812.

**GARAJEAK/LOKALAK**  
salgai

**LESAKA.** 20 m<sup>2</sup>ko lokal komertziala salgai. Albistur 43. ☎659 609678.

**LESAKA.** 90 m<sup>2</sup>ko bajeira errentan emateko edo

salgai. ☎948 637050 (08:00etatik 15:00etara).

**GARAJEAK/LOKALAK**  
errentan emateko

**LESAKA.** Albistur karrikan lurrazpiko bajera indibidual itxia errentan emateko. ☎618 962937.

**LURRAK/ORUBEAK**  
salgai

**BAZTAN.** 2.400 m<sup>2</sup> salgai Elizondotik kilometro batera. Leku polita eta lasaia. ☎948 592153.

**LESAKA.** Nabaz auzoan 2.500 m<sup>2</sup>ko terrenoa salgai. Ura eta argia gertu. Bista politak eta esplanada haundiarekin. *terreno lesaka@hotmail.com*

**LANA**  
eskariak

**Esperientziadun mutil** arduratsua lan bila dabil, adineko pertsonak zain-

tzen, igeltsero, abeltzaintzan, nekazaritzan, kamarero... Disponibilitate osoa. ☎680 289603.

**Esperientziadun emakume** arduratsua lan bila, orduka haurrak edo adineko pertsonak zaintzen, baita ostalaritzan ere. Egun osoan disponibilitatea, 07:00-19:00. ☎660 289603.

**BORTZIRIAK.** 38 urteko emakume arduratsua eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Aditua eta aritua. Ordu-tegiak ez du inporta. ☎671 122776.

**Emakume langile** bat lan bila dabil. ☎948 630247.

**ANIMALIAK**  
salerosketak

Setter arrazako **zakurkume** emea salgai. 4 hilabete txertatua. Aita eta ama ehiztari onak. ☎661 821645.

**ARANTZA**  
Zurgindegia.....  
- Klase guzietako zurgin lanak  
- Eskatu surretakontuak konpromisarik gabe

José Manuel Erandona  
Tel. 948 634 048 - 647 870 144  
Gertutze - ARANTZA

**BORDA**  
PLADUR LANAK

ESKANTZARIEKIN BERRITZITA  
ERANTZUTZEA GARA BOKALAKIA

TEL. 948 637 548 - AL. 609 477 377  
LESAKA (Palaos)  
bordepladur@ttiipi.com

**ANIMALIAK**  
oparitzeko

**Zakurkumeak** oparitzeko. Aita ehiztari ona. ☎679 892622.



**Artzain zakur aleman** zakurkumeak oparitzeko. Txertatuak eta mikrotxiparekin. ☎948 450042.



**DENETARIK**  
Salerosketak

**Ibiltzako zinta** bat salgai. Erdi tamainakoa. Prezio onean. ☎628 814152

**BASERRIA** DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA (urtarrilaren 1etik 8ra bitarteko prezioak)

**ZERRIKIA**

**Zerrikumea**  
(19 kilo): 43,00 € (=)

**Zerri gizena**  
1,005 € kilo. (=)

**Zerramak:**  
0,360€ Kg/bizirik. (=)

**BEHIKIA**

**Aretze gizenak:**  
**Idixkoak:** €/kg. Kanal

**Extra** 3,92 (=)

**1.koa** 3,62 (=)

**2.koa** 3,02 (=)

**Urruxak:** €/kg. Kanal

**Extra** 4,02 (=)

**1.koa** 3,72 (=)

**2.koa** 3,22 (=)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

**Aretze tikiak**  
(15 egun ingurukoak):

**Aretze mestizoak:**

urruak 130,00 (=)

idixkoak 210,00 (=)

**Aretze nabarrak:**  
urruak 108,00 (=)  
idixkoak 130,00 (=)

**Zaldikoak:** €/k

Sortuberriak: 2,73/2,83

Zaldi-behorrak: 1,58/1,72

**Bildotsak:** €/k

6-8 kilokoak: 6,40/7,20

8-10 kilokoak: 5,10/5,50



**Rapid segadora** dise-  
la salgai, egoera onean.  
☎948 450060.

**DENETARIK**

**galdu-aurkituak**


**LESAKA.** Urtezahar  
gauean telefono mugiko-  
rra galdu zen. Beltza,  
Sony Ericsson 705 mo-  
deloa. Lanerako behar  
beharrezkoa dut. Esker-  
tuko da. ☎667 897260.

**DOÑA BEILATOKIA**  
**PSIKOANALISTA**  
Kontaketa eskatu orduz  
☎ 948 272011 (IRUÑA)  
☎ 948 580975  
Jaime Urteja 42-2.D - ELIZONDO

**GANIX**  
TAILERRA  
Bilgaitzen mekanika  
eta elektrizitate  
BERA FIAT zerbitzu  
Burlandata, 7 - Tel: 948 630 647

**MENDAUR MOTOR**  
948 450333 • DONEZTEBE

**SUZUKI**  
(gasolina eta diesela)  
**MITSUBISHI**  
(luze eta laburrak)  
**TURISMOAK**



**Grupo Tanatorio Taldea**  
**IRACHE**  
Maldaerreka S.L.

**24 ORDUKO ZERBITZUA**  
BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA  
IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,  
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

<b>Bera</b> SAN JOSE BEILATOKIA	948 63 74 04
<b>Doneztebe</b> SAN PEDRO BEILATOKIA	948 63 74 04
<b>Elizondo</b> FUNERARIA BAZTAN TANATORIO BAZTANDARRA	948 58 19 59
<b>Leitza</b> LEITZAKO BEILATOKIA	948 63 74 04
<b>Lesaka</b> LESAKAKO TANATORIOA	948 63 74 04

# urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,34€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekia; 4) www.ttipi.net bitartez




**MADDI HOYOS EGUZKIAGIRREK** urtarriaren 12an urte bat bete du etxeko pitufak. Zorionak eta muxu bat etxeko denen partetik.



Zorionak osaba! Guapo ikusten zaitugu! Zure zain jarraitzen dugun bitartean jaso 3 besarkada bero! Maddi, Lide eta Aitzol.



**ANE OSUA CABIDA** beratarrek otsailaren 3an 10 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu handi bat familiaren eta berexiki Ikerren partetik.



**IKER OSUA CABIDA** beratarrek urtarriaren 20an 6 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu handi bat familiaren eta berexiki Aneren partetik.



**JON PAGOLA** beratarrek 6 urte beteko ditu urtarriaren 27an. Zorionak pilotari familia eta berexiki Anderren partetik. Muxu haundi bat!



Hondarribiko **MIKEL ZABALA ORMAZABALEK** 4 urte beteko ditu urtarriaren 29an. Zorionak eta segi beti bezain alai. Muxu asko familiaren partetik.



Añorgako **NAROA AROZENAK** 7 urte beteko ditu urtarriaren 24ean. Zorionak Aiala eta Gexanen partetik.



Zibolako **MANUEL** eta **MARITXOK** urtarriaren 19an 58 urte bete dituzte ezkondu zirela. Zorionak seme-alaba, biloba eta birloba guztien partetik. Segi horrela beste urte pilla batean.



**IRAIDE** eta **GARAINI IRIARTE PETIRENA** sunbilarrek urtarriaren 19an urtea bete dute. Zorionak familia guztiaren partetik eta berexiki beraien izeba Nerearen partetik. Mila muxu.



**IRAIDE** eta **GARAINI IRIARTE PETIRENA** sunbilarrek urtarriaren 19an urtea bete dute. Zorionak familia guztiaren partetik eta berexiki beraien izeba Nerearen partetik. Mila muxu.



**JORITZ** eta **LARRAITZ EUGI URTXEGI** igantziarrek urtarriaren 19an eta 26an 7 eta 4 urte beteko dituzte. Zorionak eta muxu haundi haundi bana. Maite zaituztegi pila pila patata tortilla. Atta eta ama.



**JABIER EZKURRA ALZURI** eta **EKHI EZKURRA SANZ** sunbilarrek otsailaren 5ean eta 19an urteak beteko dituzte. Zorionak familiaren partetik, berexiki Aihelen eta Omarren partetik.



Zorionak **EIDER!** Urtarriaren 18an 7 urte bete ditu. Ondo pasa zure zazpigarren urtebetetzean! Muxu haundi bat familiaren partetik.




**JOXE MARI ANDEREK** 16 urte beteko dituzte azkenean!! Auniz urtez bertze bi Joxe Mariren partetik. Bazkari edo afari baten esperoan gelditzen gara. Arazo tiki batekin: kontuak nola eginen ditugu? Muxu haundi bana. Maite zaituztegu!



Leitzako **SAIOA** eta **IERA BULDAIN ALDUNTZINEK** urtea bete dute urtarriaren 7an. Zorionak eta muxu haundi bana Naroa eta Uxueren partetik.



Leitzako **SAIOA** eta **IERA BULDAIN ALDUNTZINEK** urtea bete dute urtarriaren 7an. Zorionak eta muxu haundi bana Naroa eta Uxueren partetik.



Sunbillako **IRAIDE** eta **GARAINI IRIARTE** urtea bete dute urtarriaren 19an. Zorionak eta muxu haundi bana osaba, izeba, Julen eta Ireneren partetik.



Sunbillako **IRAIDE** eta **GARAINI IRIARTE** urtea bete dute urtarriaren 19an. Zorionak eta muxu haundi bana osaba, izeba, Julen eta Ireneren partetik.

## BISITA TXARTELAK

Kartulina berezia 300gr. - koloretan bi aldeetatik - Distira akabera

	100	200	500	1000
Txartelak (8,5 x 5,5cm)	70€	85€	110€	150€



## EZKONTZA GOBIDAPENAK

Kartulina berezia 300gr. - koloretan bi aldeetatik - Distira akabera

	50	100	500
Gonbidapenak	95€	150€	200€

\* Prezioak BEZ barne



Andutzeta, 12 - 31760 Etxalar - Tel. 948 635 458 - kulturkari@ttipi.net



# ttipi-txartela rekin beti irabazten da

DESKONTUAK · ZOZKETAK · ALDIZKARIA MUSUTRUK



ttipi-txartela egiteko edo  
zozketatan parte hartzeko deitu

**948 63 54 58**

Astelehenetik ostiralera 09:00-16:00

## ZOZKETAK



**KAMISETA**  
Onddo ta punta.



[www.onddotapunta.com](http://www.onddotapunta.com)



**LIBURU+DVD  
+POSTERRA**  
Pirritx eta Porrotx  
[www.katxiporreta.com](http://www.katxiporreta.com)



**2 LIBURU**  
Ibaizabal  
[www.ibaizabal.com](http://www.ibaizabal.com)



**LOTEA**  
Kalotxa  
opariak eta osagarriak



## DESKONTUAK

Honako denda eta bertze aunitzetan  
deskontuak izanen dituzu

**FANTXIKE**

%10, 30€tik gorako gastuan

**GOIKO**

%10 kopia digitalatan

**Intzuri**

%10eko deskontua

**IPARLA**  
kirolak

%8, 30€tik gorako gastuan

**IPINGI**

%10, 30€tik gorako gastuan

Gabonetako **ttipi-saskia** ren  
irabazlea: Txomin Ariztia Mendiburu | Arizkun



gaure bezeroek  
aukeratutako  
proiektua **can**

2009 URTEAN

**906**  
lagunek

egin zuten gure alde

MILESKER!  
MILESKER!  
MILESKER!  
MILESKER!  
MILESKER!  
MILESKER!  
ESKERMILE!

2010ean ere...

**Ttipi-ttapa fundazioak zure laguntza behar du!**

Eginzazu **TTIPI-TTAPA**ren alde  
proiektu zenbakia:

**15.9996**

Zure laguntza eskertzeko,  
boltsa eder hau opari izanen duzu!

Eska ezazu TTIPI-TTAPAren proiektua aukeratu izanaren frogagiria  
Nafarroako Kutxaren zure bulegoan eta ekar ezazu TTIPI-TTAPAra  
2010eko abenduaren 31a baino lehen.

